

## **Plautoren *Curculio* antzezlanaren euskarazko itzulpena eta oharrak**

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua  
2018-2019 ikasturtea

Ikaslea: Leire Palenzuela Badiola

Tutorea: Gidor Bilbao Telletxea

Saila: Ikasketa Klasikoak

## AURKIBIDEA

1. Plauto eta <i>Curculio</i> .....	3
2. Itzulpen-prozesua.....	4
3. Itzulpen-arazoak.....	5
3.1. Pertsonaien izenen itzulpenak.....	5
3.1.1. Gurgurio parasittoa.....	5
3.1.2. Palinuro.....	7
3.1.3. Fedromo.....	7
3.1.4. Planesia.....	7
3.1.5. Leena.....	8
3.1.6. Kapadoziar.....	8
3.1.7. Likon.....	9
3.1.8. Terapontigono.....	9
3.1.9. Sukaldaria.....	9
3.1.10. Koregoa.....	10
3.2. Akrostikoa.....	10
3.3. Lexikoa.....	11
3.3.1. <i>leno, -onis</i> .....	12
3.3.2. <i>Aesculapi fanum</i> .....	13
3.3.3. <i>merum, -i</i> .....	14
3.3.4. <i>genius, -ii</i> .....	15
3.4. Hitz-jokoak.....	16
3.4.1. <i>Curculio</i> 75-79.....	18
3.4.2. <i>Curculio</i> 333-334.....	19
3.4.3. <i>Curculio</i> 413-416.....	20
3.4.4. <i>Curculio</i> 314-316.....	21
3.4.5. <i>Curculio</i> 462-463.....	23
3.4.6. <i>Curculio</i> 76-79.....	24
3.4.7. <i>Curculio</i> 611-613.....	25
3.4.8. <i>Curculio</i> 27-32.....	27
3.4.9. <i>Curculio</i> 621-623.....	29
3.4.10. <i>Curculio</i> 15-18.....	30
3.5. Hitanoa.....	32
3.5.1. Genero nahasketa.....	32
3.5.2. Maila soziala.....	33
3.5.3. Adina.....	33
3.5.4. Bakarriketak.....	34
3.6. Kultur erreferentziak.....	36
4. Itzulpena.....	38
5. Bibliografia.....	71

## 1. Plauto eta *Curculio*

*Curculio* Plautoren (K.a. 254 - c. 184) komedia laburrena da. Autorearen lanetan ohikoa izan ez arren, antzezlan hau azkar garatzen da, bihurgune gabe, argumentua modu ordenatu eta txukunean antolatuta eta bideratuta dagoelako.

Lehenengo antzezenaren data ez da ziurra, baina badaude zenbait argumentu (ahulegiak, zenbaiten ustez) K.a. 193. urtekoa dela iradokitzen dutenak. Alde batetik, 394-395 bertso-lerroetan, K.a. 196-194 urteetan gertatu zen gertaera bati erreferentzia egiten bide zaio: erromatarrek Nabis Espartako tiranoaren kontra izandako gerra. Beste alde batetik, 509-510 bertso-lerroetan, K.a. 193an onartutako *lex Sempronia* lukurarien kontrako legerari erreferentzia egiten zaio. Horrez gain, pentsatu izan da *Curculio* Eskulapioren kultura Erromara sartu zen dataren (K.a. 293) ehungarren urteurrena ospatzeko idatzi zela, eta horren ondorioz kokatzen dela Epidauron, Eskulapioren santutegiaren parean. Egitura metriko-musikalaren arabera, azkenik, zenbat eta *canticum* gehiago izan, orduan eta antzezlan berriagoa litzatekeela pentsatzen da; *Curculio* antzezlanean dauden *canticum*ak kontuan izanik, Plautoren idazle-lanaren erdialdeko aldikoa dela pentsa daiteke, hau da, Kristo aurreko II. mendeko lehenengo hamarkadakoa.

Honako hau da antzezlanaren argumentua. Gurgurio parasittoa, bere nagusi Fedromok bidalita, Kariara joan da diru bila, nagusiak bere maitalea, Planesia, Kapadoziar andraketariari erosi ahal izateko. Bitartean Fedromo, Leena atsoaren laguntzarekin, Planesia neska gaztearekin elkartu da andraketariaren etxe kanpoan, azken hau, gaixo, Eskulapioren sendategi-santutegian dagoela aprobetxatuz. Palinurok, Fedmoren esklaboak, etengabe gogaituko ditu maitaleak. Gurgurio Kariatik diru gabe itzuliko da, baina bidaian Terapontigonon Platagidoro soldadua ezagutu du. Soldaduak Planesia erosita zeukan jada eta hogeita hamar mina Likon bankariari utziak zizkion gordailutzat, bere eraztunarekin zigilaturiko gutun bat aurkezten zuen gizonari emateko aginduarekin. Hau guztia jakinda, Gurguriok dado-jokaldi batean eraztuna kendu dio soldaduari. Epidaurora iritsi bezain pronto, Fedromo eta Palinurorekin batera, gutuna idatzi eta zigilatu egin du. Zigilatutako gutunarekin, Sumanoa goitzenarekin, Terapontigonoren esklabo baten itxurak egin ditu eta Planesia lortu du. Baina, ustekabean, soldadua azaldu da. Likon bankariari dirua eskatu dio, baina honek erantzun dio zigilatutako gutuna aurkeztu zion esklaboari eman ziola dirua.

Andraketariari neska eskatu dionean, erantzun bera jaso du. Gurgurioren iruzurrak konturatu denean, beragana joan da. Azkenean, ordea, Planesia bere arreba dela jakin du, eta Planesiaren eta Fedromoren arteko ezkontza onartu du. Gainera, andraketariak dirua itzuli behar dio, norbaitek neska askea zela aldarrikatuz gero hala egingo zuela zin egin baitzuen.

Nahiz eta ez den ohikoa Plautoren lanetan, amaiera ustekabean iristen da antzezlan honetan. Amaiera zoriontsua da, anai-arrebak elkartu egin baitira, maitaleak ezkondu eta parasitoak nahi beste jan-edan lortu baitu.

## 2. Itzulpen-prozesua

Ez daukadanez latinezko ezagutzarik, zubi-hizkuntzez baliatu naiz itzulpena egiterako orduan. Gaztelaniazko (Bravo, 1989; González-Haba, 1996), ingelesezko (De Melo, 2011) eta, noizbehinka, frantsesezko (Ernout, 1935) itzulpenak erabili ditut. Esan beharra daukat nire itzulpenaren oinarri nagusia Bravoren itzulpena (Bravo, 1989) izan dela.

Jatorrizko testua bertso-lerrotan idatzia da. Latinezko bertso-lerroak euskaratzeak zekarren zailtasuna kontuan hartuta, prosan itzultzeko erabakia hartu nuen hasieratik; izan ere, erabili ditudan zubi-testu guzti-guztiak ere prosan itzuliak dira.

Itzultzen hasi aurretik, Plautoren lanen inguruko informazioa bilatu eta *Curculio* lan osoa irakurri nuen, garrantzitsua iruditu zitzaidalako obraren ideia orokor bat izatea eta pertsonaien rolak nolakoak ziren jakitea, lanean hasi baino lehenago. Beraz, gaztelaniazko itzulpena (Bravo, 1989) irakurtzea izan zen lana hasterakoan eman nuen lehen pausua. Horrez gain, argitaratu berri den *Militar harroputza* (Bilbao & Garcia & Utrilla, 2018) antzezlanaren ere irakurri nuen, euskarara itzuli berri den Plautoren komedietako bat izanda, nire itzulpena sortzean oso erabilgarriak izango zitzaizkidan zenbait ideia aurkitzeko asmotan. Eta hala izan da, izan ditudan zenbait zalantza argitzerakoan *Militar harroputza* itzulpenera jo baitut erantzun bila erabakia hartzeko (akotazioak nola eman erabakitzerakoan edota zenbait kultur erreferentzia itzultzerakoan, esaterako).

Itzulpena idaztean, zer irakurle motari zuzendua dagoen etengabe izan dut buruan. Testu bat idazteko modua irakurle motak baldintzatzen duenez, irizpide hori hasieratik

kontuan hartzea beharrezkoa dela iruditzen zait. Nire itzulpena latinez ez dakiten literaturzale kultu euskaldunentzat egina dago; hortaz, antzezlanean aipatzen diren toki-izen, diru-izen, Jainko edota gertaeren ezagutza agian mugatua izan ditzaketela kontuan hartu dut eta erreferentzia kulturalak itzultzerako orduan, kasu askotan, azalpenak beharrezkoak iruditu zaizkit eta oin-oharretan eman ditut.

### 3. Itzulpen-arazoak

#### 3.1. Pertsonaien izenen itzulpenak

##### 3.1.1. Gurgurio parasitua

Plautoren lan honi izenburua ematen dion pertsonaiaren izena da Gurgurio parasitua, latinez *Curculio*. Parasitua pertsonaiak Plautoren lanetan hartzen duen lekua ulertu ahal izateko ezinbestekoa da hitzaren jatorria zein den jakitea. Pentsatu izan da Erroman parasitua klienteen ezaugarri txarrak azaleratzen zituela; Antzinako Erromako gizartean, klientea (*cliens*) maila ekonomiko altuagoa zuen nagusi baten babespean bizi zen gizon librea bazen, esan dezakegu *parasitua* kontzeptua *kliente* kontzeptuaren mespretxuzko baliokidea dela, beren nagusiez aprobetxatzen zirenak izendatzeko erabiltzen zena:

... otras investigaciones han demostrado que la presencia del parásito en los textos grecorromanos puede tener su reflejo en individuos reales, sobre todo si su figura pasa a concebirse como «el reflejo negativo del *cliens*». (Gallego, 2018: 27)

Baina, hori horrela izanik, etimologikoki, grekozko παράσιτος ‘mahaikidea’ hitzean izango litzateke latinezko *parasītus* hitzaren jatorria, eta hain zuzen inoren kontura jaten duen mahaikide amorratua litzateke parasitua, Erromako komedietan agertzen denaren arabera. Plautok asmatutako Gurgurioren kasuan, adibidez, Fedromoren kontura janaria lortu nahian ibiltzen da, beti gosez.

Baina parasitoei, pertsonaia gisa, rol ezberdinak jokatzen dituzte Plautoren komedia ezberdinetan, eta Gurgurioren ezaugarriak ez dituzte beste komedietako parasitua guztiek edukiko:

(...) es imprudente querer ver en el parásito un personaje tipo, dada la diferencia que opera entre el carácter y el papel de esta clase de figura en función de las distintas comedias. (Gallego, 2018: 22)

Alde batetik, badaude aholkulari diren parasitoak, beste batzuk aldiz, gosetiak dira, edozein motatako irainak jasateko prest daude janari pixka bat lortzearen truke. Azken multzo horretan sartuko litzateke Gurgurio parasittoa:

Estas figuras estaban dispuestas a asumir la condición de esclavos, desempeñar cualquier oficio y soportar todo tipo de vejaciones por degradantes que estas fuesen con tal de callar su apetito. (Gallego, 2018: 28)

Pertsonaia honen beste ezaugarri bereizgarri bat antezlanean duen garrantzia da. Gurgurio da antezlan honetako pertsonaia nagusia, eta argi dago hori, bere izena bera baita obraren izenburua. Gurgurioren kasuan, parasitoak esklabo zuhurraren rola ere badauka. Askotan esklaboa izaten zen Plautoren lanetako benetako protagonista, baina, kasu honetan, parasittoa bera dago, Gurgurio, haren lekuan. Antezlan honetan Palinuro da esklabo nagusia, eta, ondorioz, bi pertsonaiek duten zereginak antzekoak dira kasu batzuetan:

Curculio's part is strikingly similar to that of Palinurus; the clever slave, whose familiarity with his master leads him frequently to impertinence, can easily slip into the shoes of the equally forward parasitic. (Conrad, 1918: 397)

*Gurgurio* izenari dagokionez, bi kontu argitu behar dira: alde batetik, *curculio* 'gurgurioa' zereal-garuetan bizi den *Curculionoidea* superfamiliako intsektu baten izena da. Beste alde batetik, *Curculio* 'Gurgurio' pertsonaiaren izen berezia ere bada; beraz, pertsonaiaren izen mintzodunak argi egiten dio erreferentzia, intsektuak bezala, parasitoak duen jateko grinari.

Izenburua itzultzeko, jatorrizkoaz gain, itzulpenen izenburuak ere aztertu ditut. Latinezko testuaren izenburua *Curculio* da. Erabili ditudan ingelesezko testuen izenburuak ere *Curculio* dira (De Melo, 2011; Nixon, 1917), jatorrizkoan bezala, bere hartan izen berezi gisa hartuta<sup>1</sup>. Frantsesezko itzulpen nagusietako izenburua, ordea, *Charançon* da (Ernout, 1935; Somer, 1865; Naudet, 1833), hain zuzen intsektuaren frantsesezko izena, izen berezi bihurtuta; baina, beste itzulpen batzuetan, *Le charançon*, *Le curculion* eta *Le parasite* ere aurkitu dugu<sup>2</sup>. Gaztelaniazko itzulpenetan, azkenik, *Gorgojo* erabili dute guk erabili ditugun itzulpen nagusiek (González-Haba, 1996; Bravo, 1989) baina *El Gorgojo* ere aurkitu dugu BNEren katalogoan, hainbat

<sup>1</sup> Gutxiagotan, baina noizbait *Weevil* nahiz *The Weevil* ere itzuli izan da.

<sup>2</sup> Frantziako Biblioteka Nazionalaren katalogoan ikus daitezke izenburu alternatiboak:

[https://data.bnf.fr/fr/13736271/plaute\\_charancon](https://data.bnf.fr/fr/13736271/plaute_charancon)

itzulpenetan; hain zuzen, batean izen arrunta bere hartan izen berezi bihurturik, eta bestean determinatzailearekin.

Hori guztia kontuan hartuta, hiru aukera nagusi nituen izenburuarentzat. *Curculio*, *Gurgurio* eta *Gurgurioa* (*Parasitoo* eta halakoak baztertutik, gutxiago erabili direlako). Lehenengoa baztertu nuen, gero ikusiko den moduan, pertsonaia guztien izenak egokitu ditudalako, nolabait. *Gurgurioa* determinatzailearekin erabiliz gero, intsektua iradokitzen dela iruditzen zait, pertsona baino gehiago, besteak beste euskaraz ez delako oso izen arrunt erabilia. *Gurgurio* aukerarekin, aldiz, izengoiti gisa edo, parasitoo modu pertsonifikatuago batean azaltzen dela uste dut.

### 3.1.2. Palinuro

Palinuro Fedromoren esklaboa da. Bere nagusiari laguntzeko prest dago uneoro, eta aholkatu egiten du, baina etengabe gogaituko ditu nagusia eta haren maitalea, zeharkako zein zuzeneko iruzkinak eginez.

### 3.1.3. Fedromo

Fedromo *Gurgurio* antzezlaneko mutil gazte maitemindua da. Esan dezakegu Plautoren lanetan ohikoa den pertsonaia honen ondorioz gertatzen dela antzezlaneko gertakaria, bere maitalea lortzeko asmotan antolatzen baitu parasitooak azpijokoa. Fedromo gazte sentimentala da, Planesiarenganako duen maitasuna beste ooren gainetik jartzen duena.

### 3.1.4. Planesia

*Gurgurio* antzezlaneko pertsonaia nagusietako bat da Planesia neska gaztea, Fedromoren maitalea. Izatez librea bada ere, umea zenean bahitua izan zen eta andraketariaren etxean bizi da prostituta gisa. Antzezlanaren amaieran, bere anaia Terapontigono soldadua agertu eta argira aterako da benetan nor den.

Plautoren lanetan argi ikusten da garaiko gizartean emakumeak bizi zuen egoera. Nahiz eta librea izan, Planesia andraketari baten menpe bizi da eta bere maitalea den mutil gazteari eskatzen dio bera eros dezan.

Y la comedia es, por supuesto, reflejo de una estructura de dominio y sumisión, basada en el poder del más fuerte (hombre, libre y rico) sobre el más débil (mujer, esclava y pobre). (López Gregoris, 2016)

Latinezko testuan pertsonaia honen izena *Planesium* da; baita ingelesezko itzulpenean ere (De Melo, 2011); gaztelaniazko itzulpenean (Bravo, 1989), aldiz, *Planesia*. Gaztelaniazko itzulpenari erreparatzerako orduan, baina, beharrezkoa da latinezko izena kontuan hartzea, *-um* bukaeraren bilakabidea *-o* bailitzateke (*Planesio*). Baina gaztelaniazko pertsona-izenetan *-o* bukaera zuzenean maskulinoarekin lotzen dela ikusirik hartu bide da *Planesia* itzultzeko erabakia; arrazoi beragatik, nik ere gaztelaniazko itzulpenaren haria jarraitzea erabaki dut eta euskarazko itzulpenean ere *Planesia* izendatu dut neska gaztea, izenaren generoaz eta pertsonaiaren sexuaz gaizki ulerturik egon ez dadin antzezlanak irakurri edo ikustean.

### 3.1.5. Leena

Leena atsoa andraketariaren etxeko zaindari mozkortia da. Leenaren ezaugarriak aztertuz gero, ezin dezakegu Plautoren lanetako emakumeen talde nagusietan sartu. Emakumeek jokatzen duten rola asko aldatzen da pertsonaia batetik bestera, eta badaude pertsonaia batzuk erdibidean geratzen direnak.

(...) ahora bien, sobre esta generalidad Plauto demostró la cualidad y el talento de crear personajes individuales que se destacan por algunos rasgos personales, a veces a medio camino entre un tipo y otro. (López Gregoris, 2016)

Leena pertsonaia banakako horietako bat da, ez dituelako talde bateko ezaugarri guztiak betetzen. Ez da neska gaztea, ez da prostituta soil bat, ez da neskamea, ez da familiako ama. Atso bat da, andraketari baten etxeko zaindaria dena eta, gainera, mozkortia.

### 3.1.6. Kapadoziar

Kapadoziar andraketariak ere rol garrantzitsua du Gurgurio antzezlanean. Andraketaria emakumeen prostituzioaren bitartez irabaziak ateratzen zituen merkataria zen. Plautoren komediei esker, pertsonaia honen irudi zehatza jaso dugu ikuspegi moral eta sozialetik (Mattiangeli, 2011). Plautoren lanetan, andraketaria da maila baxueneko pertsonaia, izaki higuinarriz jotzen da eta etengabe jasan behar izaten ditu bereganako iseka eta iruzurrak.

All Lenones, in fact, are persons that, because of their activity, represent a special social 'type', to which particular negative characteristics are attributed and that are consequences of their social and moral opinion. (Mattiangeli, 2011: 24)



Latinezko eta ingelesezko izenak *Cappadox* dira; gaztelaniazko itzulpena, *Capadocio*; hortaz, hala jatorrizko *Cappadox* izenak nola gaztelaniako *Capadocio* izenak «Kapadoziako biztanle» adierazten dutenez, euskarazko itzulpen egokia *Kapadoziar* litzateke; zalantza izan nuen *Kapadoziarra* forma mugatuarekin, baina badirudi goitizen gisa mugagabeak erabiltzeko joera dugula (Mutriku nire herrikoak aipatzearen, adibidez, *Txaket*, *Matxet*, *Patxar*, *Mutxur*, *Biribil*).

### 3.1.7. Likon

Likon bankaria da. Plautoren antzezlanetan bankariak andraketarien aliatuak izaten dira askotan, biak baitira pertsonaia gutziatsu eta zekenak. Bankariak, dirua irabazteko asmotan, bere zordunei dirua eskatzen die baina ez ditu bere zorrak ordaintzen.

### 3.1.8. Terapontigono

Terapontigono Platagidoro *Gurgurio* antzezlaneko soldadua da. Plautoren lanetan, soldaduak pertsonaia harroputzak dira, eta benetan gertatu ez diren balentria militar eta amodiozkoak kontatzen dituzte etengabe. Esan beharra dago, baina, Terapontigonoren kasua ezberdina dela, Planesia neska gaztearen anaia baita eta, hori jakiten duenean, aldatu egiten baita bere jarrera.

Bere izenari dagokionez, pentsatu izan da soldaduaren izen-abizenek Demetrio Poliorzetsi aipamena egiten diela. Terapontigonok ‘Antigonoren zerbitzari’ (bere aitaren eta osabaren izena) esan nahiko luke; Platagidoro *txalo egin* eta *opari* hitzetatik eratorria izango litzateke, ‘oparizat txaloak jasotzen dituen’ esanahiarekin. Beste batzuek, aldiz, uste dute aipatzen den pertsona Antigono Gonatas dela. Azkenik, beste autore batzuek diote Terapontigonoren esanahia ‘esklabo batengandik jaioa (oparizat txaloak jasotzen dituen)’ dela eta Plautorentzat soldadu-izen ohikoa litzatekeela.

### 3.1.9. Sukaldaria

Sukaldariak Plautoren lanetako bigarren mailako pertsonaiak dira. Normalean pertsonaia hauen helburua ikusleengan barrea eragitea izaten da.

This is clearly introduced for comic effect; there is no recurrence to this theme in the remainder of the play. (Conrad, 1918: 396)

Hala ere, argudiatu izan da Gurgurioren kasuan sukaldariaren agerraldiak beste helburu bat ere baduela. Palinuro eta Gurgurio pertsonaiak aktore bakar batek antzezteko aukera ere badagoela esaten da eta, ondorioz, sukaldariak elkarrizketan

daukan parte-hartze honen helburua litzatekeela aktoreak pertsonaiak aldatzeko denbora irabaztea.

In practice the parts of Curculio and Palinurus may both be played by the same actor, allowing the roles to be further intertwined. (Papaioannou, 2008: 115)

It would seem reasonable to infer that the cook is introduced to facilitate the change of role from Palinurus to Curculio. (Conrad, 1918: 398)

### 3.1.10. Koregoa

Antzerki erromatarrean, koregoa aktoreen jantziez eta osagarriez arduratzen zen diruduna zen; lehenago, Greziako antzerkian, antzezkizuneko koroa antolatu eta babesten zuena zen, eta hortik hartu zuen izena. Antzezlanean zehar soilik bakarrizketa bat dauka, laugarren ekitaldiko lehenengo agerraldian. Marcela A. Suárezen arabera (Suárez, 2010), bakarrizketa horretan, *orator* baten posiziotik, funtzio metateatrala izango luke, publikoaren arreta galtzea ekarriko lukeen ekitaldiarterik ez izateko.

### 3.2. Akrostikoa

Akrostikoa olerki bat da, zeinaren hasierako, erdiko edo amaierako hizkiek, bertikalki irakurrita, hitz edo esaldi bat eratzen duten. Plautoren lanetan, akrostiko baten bidez azaltzen dira lan ezberdinen argumentuak eta esaldien lehen hizkiek lanaren izenburua osatzen dute. *Curculioren* kasuan, hau da latinezko testuaren akrostikoa:

#### ARGUMENTVM

Curculio missu Phaedromi it Cariam  
Vt petat argentum. ibi eludit anulo  
Ritualem. scribit atque opsignat litteras.  
Cognoscit signum Lyco, ubi uidit, militis.  
Vt amicam mittat pretium lenoni dedit.  
Lyonem miles ac lenonem in ius rapit.  
Ipsus sororem, quam peribat, repperit,  
Oratu quouis Phaedromo nuptum locat.

*Curculio* izenburuari *Gurgurio* itzulpena eman diot, goian azaldu dudan moduan. Akrostikoa egiterako orduan, euskarazko izenburuan berehala ikusi nuen zailtasuna, bi «r» baitaude eta euskaraz ez baitago hizki horrekin hasten den hitz askorik, are gutxiago lanaren argumentua azaltzerakoan erabili daitekeenik. Burura etorri zitzaidan beste irtenbide bat akrostikoa esaldien azken hizkiekin egitea izan zen, baina euskaraz hitz amaieran «g» hizkia aurkitzea ezinezkoa denez, baztertu egin nuen aukera hau. Arazo

honi irtenbidea bilatu nahian, latinezko *Curculio* izenburuarekin egiteko aukera etorri zitzaidan burura, baina azkar ikusi nuen ezinezkoa izango zela, bi «c» baitaude.

Zenbait aukera baztertu ondoren, bi bide iruditu zitzaizkidan akrostikoa itzultzeko egokienak. Alde batetik, esaldi erdialdean (hitzen aurrean, atzean zein erdian) kokatzen ziren hizkien bitartez hitza osatzearen aukera. Honela, adibidez:

#### ARGUMENTUA

Fedromok bidalita, Gurgurio Kariara joan da diru bila.

Bertan, bere ugazabaren aurkariari eraztuna lapurtu,  
gutun bat idatzi eta eraztunaz zigilatzen du.

Likonek ikusi bezain laster eza gutzen du soldaduaren zigilua eta  
andraketariak bere neska laguna aska dezan, haren ordaina ematen dio.

Soldaduak epailearen aurrean eramango ditu Likon eta andraketaria,  
baina jakingo du maite duen neska gaztea bere arreba dela.

Arrebak eskatuta, haren eta Fedromoren arteko ezkontza onartuko du.

Bestetik, esaldiko lehenengo hitzaren hizkien bitartez egitea zen bigarren aukera, «r» hizkiaren aurretik beste hizki bat edo batzuk sartuta, eta lerro horien aurkezpenean koxka bat gutxiago sartuta. Azkenean, bigarren aukera hau hautatu nuen, bisualki jatorrizkoarengandik antzekoagoa denez, egokiagoa iruditu zitzaidalako. Hau da akrostikoaren euskarazko itzulpena:

#### ARGUMENTUA

Gurgurio Kariara joan da diru bila, Fedromok bidalita.

Ugazabaren aurkariari eraztuna lapurtu dio bertan, eta  
eraztuna erabili du idatzi duen gutuna zigilatzeko.

Galdetu ere egin gabe, Likonek ikusi bezain laster ezagutu du soldaduaren zigilua.

Une horretan, andraketariak bere neska-laguna aska dezan, ordaina emango dio, baina  
andraketaria eta Likon epailearen aurrera eramango ditu soldaduak.

Intzestuaren berri izango du soldaduak, ordea, maite duen neska gaztea bere arreba baita.

Onartu egingo du Fedromoren eta bere arrebaren arteko ezkontza, arrebak eskaturik.

### 3.3. Lexikoa

Jatorrizko testua zein motatakoa den kontuan izanda, argi izan nuen hasieratik itzulpenak sortuko zizkidan zailtasunetako batzuk lexiko mailakoak izango zirela. Itzulpena ahalik eta egokien egiteko helburuarekin, zenbait kasutan bilaketa sakonago bat egin behar izan dut hala eskatzen zuten hitzekin.

Lexiko mailan izan ditudan zailtasun nagusietako batzuk aipatuko ditut hemen:

### 3.3.1. *leno*, *-onis*

Komedia honetako pertsonaietako bat, Kapadoziar, *leno* da lanbidez.

Lanbide horren euskal ordainari zenbait buelta eman diot, azken erabakia hartu baino lehen. Gaztelaniazko latin-hiztegi ezagunenean (*Spes-Vox* hiztegian) «alcahete, seductor, rufián» dakar *leno* sarreran; Agustín Blánquezen hiztegian, berriz, honela: «Plaut. Cic. Mercader de mujeres esclavas. | Cic. Alcahete, rufián, el que sirve de medianero».

Gaztelaniazko itzulpenetako batek *lenón* itzuli du (Bravo, 1989) eta besteak (González-Haba, 1996) *rufián*. Beste alde batetik, ingelesezko itzulpenean (De Melo, 2011) *pimp* erabili da.

Nire lehenengo itzulpena *artekari* izan zen, hain zuzen “suabeena”. Gaztelaniazko *lenón* hitzaren euskarazko baliokidea bilatu nahian, *Diccionario de la Real Academia Española* hiztegian esanahia begiratu eta *alcahete* eta *rufián* baliokideak proposatzen zizkidala ikusi bainuen. Hortik abiatuta, maitasun erlazioen testuinguruan *alcahete* erabiltzen zela ikusirik, bere itzulpen bat erabiltzea egokia iruditu zitzaidan, hau da, *artekari*.

Baina, termino hau itzultzerakoan beharrezkoa iruditu zait pertsonaia hauek Plautoren lanetan izaten duten rola kontuan hartzea, eta, goragoko atal batean azaldu dudan moduan, Kapadoziar emakumeen prostituzioaren bitartez irabaziak ateratzen zituen merkataria zen; hori ez da zehazki artekaria, *proxeneta* baizik, zehazkiago «mercader de mujeres esclavas», goian esan dugun moduan. Honako hau da Euskaltzaindiaren Hiztegiak *proxeneta* hitzarentzat ematen duen definizioa: «Beste pertsona baten prostituzio lanetik etekin ekonomikoa ateratzen duen pertsona». Eta hori da, hain zuzen, Kapadoziarren lana ondoen biltzen duen definizioa. Baina Plautoren euskarazko itzulpen honetan erabiltzeko hitz “gordinegia” eta “teknikoegia” iruditzen zitzaidan. Zehazki Hiztegian, alternatiba moduan, *putazain* eta *emezain* eskaintzen dira, *rufián* sarreran. Nola Erran hiztegian ere *proxeneta* agertzen da *proxénète* sarreran, baina *maquereau* sarreran, *makarela* eta *belatxari* ere ematen ditu, ‘proxénète’ adieran. Azkenik, Labayru Hiztegiak eskaini digu gure ustez Plautoren *leno* euskaratzeko eta Kapadoziarren lanbidea adierazteko hitz egokia: *andraketari*. Bere kontra du ez

dagoela Euskaltzaindiaren Hiztegian (ezta *putazain*, *emezain*, *makarela* edo *belatxari* ere, adiera honetan), ez eta corpus nagusietan ere (ez da testuetan erabili); Orotariko Euskal Hiztegiak jakinarazten digu Bizkaieraz eta Gipuzkeraz erabili dela Azkueren arabera eta Larramendik ere bildu zuela («V, G ap. A; Lar»). Agian hautu ausarta da euskara idatzian batere erabili ez den hitz bat erabiltzea, baina nire ustez hiztegi-tako hitz honek oso ondo balio du Kapadoziarren lanbidea adierazteko, hain zuzen andraketan edo andre-merkataritzan jardutea.

### 3.3.2. *Aesculapi fanum*

Zalantzak sortu dizkidan beste termino bat *fanum* izan da. Lehenik eta behin, itzulpen guztiek proposatzen zituzten terminoak begiratu eta konparatu nituen. Itzultzaile ingelesak *shrine* (De Melo, 2011) itzuli du; gaztelaniaz *santuario* (Bravo, 1989) eta *templo* (González-Haba, 1996) aukerak aurkitu daitezke; frantsesez *temple* (Ernout, 1935) proposatzen da. Zubi-hizkuntzetan eman diren itzulpenak eta hauen euskarazko baliokideak ikusirik, hasieratik izan nituen hiru aukera nagusi: *tenplu*, *santutegi* eta *jainkotegi* (hirugarren hau, pentsaturik Antzinateko Grezian ez zeudela santuak, jainkoak baizik). Aukera hauen esanahiak eta izan duten erabilera aintzat hartu ditut erabakitzean, Euskaltzaindiaren Hiztegiak esanahi hauek ematen baititu:

#### *Tenplu:*

iz. Erljio zereginetarako edo jainko bati gurtza egiteko bereziki prestaturiko eraikina. Ik. eliza 4. *Jerusalemeko tenpluan*. *Apoloren tenplua*. (Euskaltzaindiaren Hiztegia)

#### *Santutegi:*

1 iz. Santu entzutetsu baten irudia edo erlikia gurtzen den eliza edo lekua. *Guadalupeko santutegira erromerian bakarrik eta oinez joan zitezela*. *Arantzazuko santutegia*.

2 iz. Jainko pagano bat gurtzen den tenplua edo tokia. *Greziako santutegiak*. (Euskaltzaindiaren Hiztegia)

*Jainkotegi* ez du Euskaltzaindiaren Hiztegiak biltzen.

Hau ikusirik, *jainkotegi* hitza baztertu egin nuen, Euskaltzaindiaren Hiztegian ez azaltzeaz gain, beste aukerekin alderatuta sarrera gutxi (30) baitauzka Egungo Testuen Corpusean eta bat ere ez Ereduzko Prosa Gaur erreferentzia corpusean. Gainera, *santutegiren* definizioak zehazki aipatzen ditu jainko paganoak eta Greziako santutegiak.

*Santutegi* eta *tenplu* terminoen artean erabakitzea gehiago kostatu zitzaidan, hasiera batean ez nuelako hauen arteko desberdintasuna garbi ikusten. Itzultzen jarraitu

ahala, ordea, ikusi nuen testuan zehar bi gauza ezberdin adierazteko erabili behar nituela bi hitzak.

Testuan *Eskulapioren santutegia* aipatzen denean hainbat eraikinez osaturiko leku zabal bati egiten zaio erreferentzia. Bertan dago Kapadoziar andraketaria, gaixo dagoelako:

FEDROMO.– Baina, zer dela uste duk? Niganaino ezkutuan etortzeko aukera duen bakoitzean, musutxo bat eman eta ihes egiten dik. Andraketari hori duk guztiaren errudun, bere gaixotasunaren ondorioz Eskulapioren santutegian ohean dagoen hori, oinazeturik naukan hori. (*Gurgurio* 59-62)

Esan daiteke *santutegia* eraikin-multzo zabalago bat dela, sendategi edo ospitale gune antzeko bat:

OHARRA: En los santuarios de Esculapio se aplicaban diversas técnicas terapéuticas, de carácter cuasicientífico, que los convertían en auténticos sanatorios donde los enfermos eran sometidos a curas prolongadas. (Bravo, 1989: 521)

Aurrekoa kontuan hartuta, *tenplua* santutegiko eraikin-multzo barruan egongo litzatekeen jainkoa gurtzen den toki konkretua izango litzateke; Epidauron, Eskulapio edo Asklepios beraren tenplua zegoen, baina baita Apolorena, Artemisarena, Afroditarena... eta Plautoren testuan (*Curculio* 266) aipatzen den Jupiterrena.

Erabili ditudan ingelesezko eta gaztelaniazko testu nagusietan ere desberdintasun hau egin dute itzultzaileek. Ingelesezko bertsioan (De Melo, 2011), *shrine* ‘santutegi’ eta *temple* ‘tenplu’ desberdindu ditu itzultzaileak. Gaztelaniazkoan (Bravo, 1989), *santuario* ‘santutegi’ eta *templo* ‘tenplu’ desberdindu dira. Nire itzulpena ere bide honetatik eramateko erabakia hartu dut.

### 3.3.3. *merum, -i*

Itzultzerakoan zenbait buelta eman dizkiodan beste termino bat *merum* izan da. Gaztelaniazko itzulpena *vino puro* da (Bravo, 1989; González-Haba, 1996); ingelesez *undiluted wine* (De Melo, 2011) itzuli du itzultzaileak; frantsesezko itzulpena *vin pur* da (Ernout, 1935).

Gaztelaniazko eta frantsesezko itzulpenetatik abiatuta, lehenengo aukera *ardo purua* itzultzea izan zen. Orotariko Euskal Hiztegian *puru* hitza ardoarekin erabiltzen dela ikusi dezakegu:

1 **puru** (L, BN, S; H; *ph-* Urt), **pur** (S; *VocBN*, Gèze, H), **puro**. Ref.: Lh; Lrq. ● [...].

**I** (Adj.).

Puro, sin mezcla; puro, total, absoluto. "Ezti *phúrua*" Urt I 102. "Net, sans mélange ni alliage" *VocBN*. \* *Baina Zibitatea bera zen urrhe purez, beira pura irudi*. Lç Apoc 21, 18 (He *phuru* [...] *garbi*, TB *huts* [...] *huts*, Echn *puro* [...] *garbi*, Ip *xahü* [...] *argi*, Ur (G), Ol *garbi* [...] *argi*, Ur (V) *garbi* [...] *garbi*, Dv *garbi* [...] *arraso*, Ker *garbi* [...] *uts*, IBk, IBe *huts* [...] *garbi*). *Ebanjelioko doktrina puraren araura bizitzeko*. Lç *Ins G* 1r. *Iaungoikoa izanik espiritu puru bat*. Cap (ed. 1893), 43. *Hau da Iosephen esposa / sendagailla purua*. Hm 120. *Uskaldun puro leitzen estakitenei*. El 1. *Ardo purua ur tanto batekin*. Iraz 57. *Ez deus phuru batzu baizeñ ez garen arren*. He *Gudu* 39. *Zerren Espiritu naste bagea edo purua dan*. Cb *CatV24*. *Mudatzeko metal bajo eta bilak urre puruen puruenean* (B, s. XVIII). *BOEans822*. *Gizon puroetan ezta izan nior ere ederrago eta obeki eginik nola Adan*. Ib. 707. *Miseria eta erromesia phuruba baizen ez zarela*. Mih 31. *Jinkuak bere huntarziün püraz eta Jesü-Kristoren mereximendiüz emaiten dauküna*. *CatLan* 63. *Etorkiz zare jausten puruenetarik, / Frantzian diren etxe zaharrenetarik*. Lg *inIraultza* 121. *Mila gauza funsgabekoen eta kuriostasun phuruzkoak direnen gainean*. Brc 7. *Gure eskualdun phuruen errenkurek*. Ib. 7. *Beste zaragijetako ardaua egongo dala purubagua*. Mg *PAb* 61 (en boca de Maisu Juan). *Gorputz bagako espiritu uts edo puru* [...] *batzuk*. *Astar II* 280. *Behar huntan talendua / dela grimasa purua*. Gy 293. *Hura da ezti phurua eta garastiena*. Dv *Lab* 301. *Zeruko urdin puruan*. Bil 67. *Nai degu lege puruba*. Ud 135. *Langilleai komeni / erari puruak*. *JanEd I* 22. *Esne purra saldu eta / hura frango edan*. Xa *EzinB* 103. *Oiek beti erdaldun puruak ezagutu ditut nik*. *Insausti* 41. *Sagardo puroa edan bearrean, ur dexente nastu*. *Albeniz* 18. v. tbn. *Zuzaeta* 89. *CatUt* 45. *CatLlo* 19. *CatUlz* 17. *Puro*: LE *Doc* 43. *CatB* 27. *CatAe* 24. *CatSal* 25. *CatR* 25. (Orotariko Euskal Hiztegia)

Hala ere, corpusetan begiratuta, *ardo puru* multzoak izandako erabilera oso urria dela ikusi dut. Erabileraz gain, *ardo purua* irakurtzean irakurleak azalpen baten beharra izango lukeela uste izan dut. Azalpen hori oin-ohar batean eman beharko nuke, *ardo purua* ardo hutsa dela esanaz, hau da, nahasterik gabeko ardoa, ohikoa izaten baitzen ardoa espezieren batekin nahastea. Horren guztiaren ondorioz, zuzenean *nahasterik gabeko ardoa* itzultzea erabaki dut.

### 3.3.4. *genius*, -ii

Gurguriok Fedromori deitzen dio *genium meum* (*Curculio* 301). Latinezko *genius* itzultzean izandako lehen zailtasuna terminoaren esanahia bera ulertzea izan zen.

Hona hemen Agustín Blánquezen latin-hiztegiak dakarren azalpena: «Genio tutelar, protector particular de cada hombre, por quien velaba desde el nacimiento; cada lugar, cada ciudad, cada estado, cada casa tenía su genio tutelar, a quien se invocaba, y a quien se ofrecían sacrificios, y con el que se compartían alegrías y tristezas».

Gaztelaniaz *genio* (Bravo, 1989) eta *genio tutelar* (González-Haba, 1996) itzuli da; ingelesez *vital spirit* (De Melo, 2011); frantsesezko itzulpenean *génie* (Ernout, 1935) erabili da.

Euskarazko hiztegiek hitz horientzat ematen dituzten baliokideak ikusi eta hiru aukera nagusi hautatu nituen itzulpenerako: *jeinu*, *jenio* eta *iratxo*.

Azkenetik hasita, *iratxo* sarreran Euskaltzaindiaren Hiztegiak ematen dituen definizioak testuinguru honetako esanahia ongi biltzen duela esan genezake: «Gizakiei laguntzen edo, bereziki, kalte egiten omen dien izaki alegiazkoa». Baina arazoa da *iratxo* hitza “*euskal* izaki alegiazkoa”rekin lotzen dugula, nire ustez, gaur egungo gizartean. Horren ondorioz, Plautoren komedia bat irakurtzean *iratxo* terminoa irakurleei lekuz kanpokoa iruditu dakiekeela uste dudanez, baztertu egin nuen aukera hori.

*Jeinu* eta *jenio* terminoen arteko desberdintasuna txikia bada ere, *jeinu* terminoak *jenio* terminoak biltzen ez duen beste adiera bat biltzen duela ikusi dezakegu Orotariko Euskal Hiztegian (Euskaltzaindiaren Hiztegian ez, ordea):

**jeinu** (SP, Chaho (que cita a O), Dv, H, A (que cita a O); *yeinh- VocBN* → A (j-)), **deinu** (-*nh- VocBN* → A; vEys, H). *Tr.* Documentado sobre todo en textos septentrionales. En *DFrec* hay 6 ejs., 4 septentrionales, de *jeinu*.

(...)

♣3. Genio, divinidad menor. \* *Arima, Iainko, naiz jeinu, diranak oro su beretik eginak dira. Zait Plat 32. Latinezko hitz batzuek estaltzen eta jaunzten zituztela hemen gaindiko jeinuak: [...]. Lf CEEN 1973, 123. Amilamia [...] Alaba-Salbaterrako jeinu maitagarri bat. Ib. 125.*

Erabilerari dagokionez, Egungo Testuen Corpusean 1617 agerraldi ditu *jeinu* terminoak eta 2064 *jenio*k. Nahiz eta biak erabili izan diren pertsona trebe nahiz izaera esanahiekin, testuinguru honetako esanahiarekin gehienbat *jeinu* hitza erabili izan da. Adibidez: «Jeinu boteretsu horren muga bakarra argia da, ezin baitu argian biziraun» (Egungo Testuen Corpusa).

Hala ere, iruditu zitzaidan *jeinu* hitza bere horretan uzteak ez zuela esanahia guztiz aditzera ematen. Arazo horri irtenbidea emateko, gaztelaniazko *genio tutelar* (González-Haba, 1996) itzulpenetatik abiatuta, *jeinu babesle* itzultzea erabaki nuen, itzulpen horren bidez Plautok esan nahi duena argi ulertzen delakoan.

### 3.4. Hitz-jokoak

Esan dezaket lan hau itzultzerakoan izan dudana zailtasun nagusietako bat hitz-jokoan itzulpena izan dela. Jatorrizko testuan azaltzen diren hitz-jokoak eta horientzat zubi-hizkuntzetako itzulpenek ematen dituzten ordainak euskarara itzultzerako orduan



hainbat erabaki hartu behar izan ditut. Hitz-jokoak berekin lotuta dakar irakurlearengan sortzen duen efektua, eta funtsezkoa iruditu zait efektu hori mantentzea.

Hitz-jokoen itzulpenak eragindako zailtasunei aurre egiteko hainbat modutan jokatu dut, kasu bakoitzerako egokiena iruditu zaidan moduan. Kontuan izan behar da erabili ditudan sorburu testuak ere itzulpenak izan direla, eta itzultzaileek ezberdin jokatzera erabaki dutela kasu batzuetan. Horrelakoetan, jatorrizko testuari erreparatu eta nire ustez egokiena zen bidea jarraitu dut. Hitz-jokoak itzultzeko erabiltzen diren teknikak sailkatzeko, Dirk Delabastitak 1996an proposatu eta Josep Marcok 2010ean laburbilduriko sailkapena hartu dut oinarritzat:

1. pun → pun: the ST pun is translated by a target-language pun, which may differ more or less widely from the ST pun in terms of formal or semantic structure or of textual function;
2. pun → non-pun: the ST pun may be replaced by a non-punning phrase which can relay both meanings of the source pun or just one;
3. pun → related rhetorical device: the ST pun is replaced by a wordplay-related rhetorical device (repetition, alliteration, rhyme, irony, paradox, etc.) in order to recreate the effect of the ST pun;
4. pun → Ø: the ST fragment where the pun occurs is omitted;
5. pun ST = pun TT: the translator relays the ST pun in its original formulation, i.e. without actually “translating” it;
6. non-pun → pun: the translator introduces a pun when translating a ST passage where none occurred, possibly in order to compensate for a previous or subsequent loss, or for some other reason;
7. Ø → pun: new textual material is added which includes a pun, probably also to compensate for a loss;
8. editorial techniques, such as explanatory footnotes or endnotes, translator’s comments in a prologue or foreword, etc. (Marco, 2010: 268)

Sailkapen honetan argi ikusten da bide posible asko daudela hitz-jokoen itzulpenean. Jatorrizkoaren antzekoa den irtenbideak eskaintzen dizkigute bide horietako batzuek, guztiz ezberdinak beste batzuek. Nahiz eta nik ez ditudan sailkapeneko teknika guztiak erabili, zubi-hizkuntzetako itzulpenak jatorrizkoarekin konparatzerako orduan ikusi dut itzultzaile batzuek, nik erabili ditudan teknikez gain, beste zenbait teknika ere erabili dituztela, eta kasuren batean hitz-jokoa galdu ere egin dela.

Garrantzi handia eman diot nire itzulpenak jatorrizko testuaren efektua mantentzeko, ironia, hots-kidetasuna zein esamolde bidez lortzen dena, eta hori izan da itzultzeko orduan izan dudana helburu nagusia, beti lortu ez dudana arren. Hortaz, ahal dela, latin-testua euskaratzean, hitz-jokoak mantentzen saiatu naiz eta sorburu testuko

hitz-joko bat beste hitz-joko batengatik ordezkatu nahi izan dut. Hona hemen adibide batzuk:

#### 3.4.1. *Curculio* 75-79

Jatorrizko testua:

PHAE iam scies.  
anus hic solet cubare custos ianitrix,  
nomen Leaenae est, multibiba atque merobiba.  
PAL quasi tu lagoenam dicas, ubi uinum Chium  
solet esse.

Jatorrizko testuko *Leaena* eta *lagoena* hitzek hots-kidetasunaren bidez egiten dute hitz-jokoa.

Gaztelaniazko Bravoren itzulpenean, hots-kidetasuna mantendu da, gaztelaniaz ez dagoen hitz bat asmatuaz (*laguena*) latinezkoaren transkripzio bidez eta oin-oharrearantz zehazturik ontzi mota bat dela:

FÉDROMO.— Ahora lo sabrás. Aquí duerme una vieja que está encargada de vigilar la puerta. Se llama Leena, una gran bebedora y bebedora de vino puro.

PALINURO.— Vamos, como si dijéramos una laguena en la que se suele guardar el vino de Quiós.

OHARRA: Laguena (lat. *lagoena*) es una vasija de cuello alargado que servía para guardar el vino. Nos limitamos a transcribir el significante para poder reproducir la rima *Leaena... lagoena*, que es elemento fundamental del pasaje.

(Bravo, 1989)

González-Habaren itzulpenean, bestalde, galdu egin da hots-kidetasuna:

FÉD.— Ahora mismo lo verás. Aquí se acuesta de guardia una vieja, la portera, se llama Leona, que le gusta mucho el tringue, y de vino puro.

PA.— Como si dijéramos una garrafa de esas de vino de Quiós. (González-Haba, 1996)

Ingelesezko itzulpenean ere hitz-jokoa galdu da, eta oin-oharrearantz eman du horren berri:

PHAE You'll know in a moment. Normally an old woman sleeps here, the guardian and keeper of the door. Her name is Laena. She's a great drinker of undiluted wine.

PAL As if you were calling her a bottle which is usually full of wine from Chios.

OHARRA: There is a pun on *Leaena* and *lagoena* "bottle".

(De Melo, 2011)

Frantsesezko itzulpenean ere galdu egin da hots-kidetasuna, eta ez du oin-oharrik ere erantsi:

**Phédrome.** — Tu vas le savoir. La maison a pour gardienne et pour portière une vieille femme, nommée Lééna : une qui boit sec et qui boit bien.

**Palinure.** — Comme qui dirait une bouteille où l'on met le vin de Chio. (Ernout, 1935)

Euskarazko itzulpenean hots-kidetasuna mantentzen saiatu naiz beste hitz-joko bat sortuz. *Leena* izenaren antzekoa den hitz bat aurkitzen saiatu naiz eta *lehena* hitza hautatu dut, jatorrizkoak eta itzulpenek duten zentzua mantenduz, Kiosko ardoa gordetzen den pitxerrarekin konparatuz, *pitxerretan lehena* idatzi dut itzulpenean, betiere hots-kidetasuna mantentzeko, esanahia gehiegi aldatu gabe:

FEDROMO.— Ikusiko duk. Hemen egiten dik lo atea zaintzeaz arduratzen den atsoak. Leena duk bere izena. Edarizale eta ardosendozalea duk.

PALINURO.— Esan zenezake bera dela pitxerren artean lehena, Kiosko ardoa gordetzeko erabiltzen dena!

Beste kasu batean, hitz-jokoa ez da hots-kidetasuna, espero ez den hitza ematea baino; kasu honetan, *maganam argenti... copiam* edo espero da, eta, horren ordez, ... *inopiam* juxtu kontrakoa esan du: aberastasunaren ordez, ezereza.

#### 3.4.2. *Curculio* 333-334

Jatorrizko testua:

CVR [...] Respondit mihi paucis uerbis, atque adeo fideliter,  
Quod tibi est item sibi esse, magnam argenti... inopiam.

Gaztelaniazko itzulpenetan ere, itzultzaileek gaztelaniazko bi esamolde erabili dituzte. Ez dira zehazki itzulpenak, baina irakurlearentzat esamolde herrikoi bat bilatu du bakoitzak:

GORGOJO.— [...] Me respondió, en pocas palabras y con absoluta sinceridad, que estaba en la misma situación que tú: que no tenía dónde caerse muerto. (Bravo, 1989)

GO.— (...) Me contestó en pocas palabras, y sin andarse con rodeos, que le pasa lo que a ti, que respectivamente a cuestiones monetarias tiene..., lo que se dice ni una perra. (González-Haba, 1996)

Ingelesezko itzulpenean, berriz, esaldia ia hitzez hitz itzuli da:

CUR [...] He answered me in a few words, and entirely without pretence, that money-wise he has the same that you have, a great... lack. (De Melo, 2011)

Frantsesezko itzultzaileak ere ingelesak bezala jokatu du:

**Charançon.** — (...) Bref, à ma demande il a répondu, en quelques mots, mais avec une loyauté parfaite, qu'il... souffrait du même mal que toi, d'une grande disette d'argent.  
(Ernout, 1935)

Euskarazko itzulpenean erabili dudana *goian zerua, behean lurra* esamoldeak jatorrizko hitz-jokoaren esanahia gordetzen duela eta forma aldetik ere testuan bikain txertatzen dela iruditzen zait:

GUGURIO.– [...] Hitz gutxirekin eta zintzotasun guztiz esan zidan zure egoera berean zegoela, goian zerua eta behean lurra.

Beste kasu batzuetan esanahia guztiz aldatzeko beharra ere izan dut, ezin izan baitut euskarazko esanahi bereko ordainik aurkitu. Adibidetzat *Summanus* izenaren itzulpena dago. Latinezko *Summanus* izena gaueko tximistargien Jainkoarena da, Jupiterren goitizen bat baita; baina, kasu honetan, Plautok beste adiera etimologiko oker bat iradokitzen du esklaboa izendatzean: *summanare*, hau da, 'pixa gainean egin'.

### 3.4.3. *Curculio* 413-416

Jatorrizko testua:

CVR     libertus illius, quem omnes Summanum uocant.  
LYC     Summane, salve. Qui Summanu's? fac sciam.  
CVR     quia uestimenta <mea>, ubi obdormiui ebrius,  
          summano, ob eam rem me omnes Summanum uocant.

Bravok, bere gaztelaniazko itzulpenerako, beste oinarri bat hartu du hitz-jokoa egiteko. Esklaboa *Fulgorino* izendatu du, *fulgor* 'tximista' eta *orinar* hitz bakarrean bilduta:

GORGOJO.– Un liberto suyo, al que todos llaman Fulgorino.  
LICÓN.– ¡Salud, Fulgorino! Pero, ¿por qué te llaman Fulgorino? Explícamelo.  
GORGOJO.– Porque, cuando me duermo borracho, en las ropas me orino. De ahí que todos me llamen Fulgorino. (Bravo, 1989)

González-Habak, aldiz, ez du hitz-jokoa itzuli eta oin-ohar bat erabili du azalpena emateko:

GO.—Yo soy un liberto suyo y me llaman Summano.  
LI.— Summano, salud. Pero ¿por qué te llaman Summano?  
GO.— Pues porque, cuando me emborracho y me quedo dormido, pues remojó la ropa con ciertas emanaciones, y por eso me llaman Summano.

OHARRA: *Summanus* es un epíteto de Júpiter, derivado de *summus* (cf. VALDE-HOFFMAN, Lat. etym. Wörterbuch, s. v.), puesto aquí en relación con el verbo *summano* «mojar, humedecer». (González-Haba, 1996)

Ingelesezko itzulpenean esklaboaren izena mantentzen da, *Summanus*, baina esanahia aldatu egin dio De Melo itzultzaileak, ingelesezko hots-kidetasuna mantenduz:

CUR His freedman, whom all men call Summanus.  
LYCO Hello, Summanus. How come you're Summanus? Let me know.  
CUR Because whenever I'm drunk, I sure act like some anus. (De Melo, 2011)

Frantsesezko itzulpenean mantendu egin dira esklaboaren izena, *Summanus*, eta esanahia. Hots-kidetasuna galdu egin da, baina ez bakarrik oin-ohar baten bidez, testuan bertan ere azaldu du nolabait hitz-jokoa:

**Charançon.** — L'affranchi du militaire; on m'appelle Summanus.  
**Lycon.** — Summanus, salut. Mais pourquoi Summanus?  
**Charançon.** — Parce que, quand je m'endors après boire, j'arrose mes couvertures : de là ce nom de Summanus .

OHARRA: Jeu de mots sur « summanus », adjectif dérivé de « sub mane » « vers le matin », qui sert d'épithète à Jupiter, et qui ici est rapproché de « submânô », composé de « mânô » « couler, suinter » pris ici transitivement au sens de « arroser ; pisser sur ou contre quelque chose ». Le surnom de « summanus » est pris dans le sens de « Dieu de la rosée matinale; arroseur de nuit ». (Ernout, 1935)

Euskarazko itzulpenean *Sumanoa* izena eman diot esklaboari, baina oinarriztat hartu dudana esanahia aldatu dut. *Sumatu* aditzean eta *anoa* ('janari kopurua, bereziki ibilbide batean jateko prestatzen dena') izen arruntean hartu dut izenaren oinarria. Modu honetan, ingelesezko itzultzaileak hautatutako bidea jarraitu dut nik ere eta, nahiz eta esanahia aldatu diodan izenari, euskarazko itzulpeneko esanahiak parasitoak duen jateko grina iradokitzeaz gain, latinezko izenarekin hots-antzekotasuna dauka:

GURGURIO.– Bere liberto bat, Sumanoa deitua.  
LIKON.– Agur, Sumanoa! Baina, zergatik deitzen diate Sumanoa? Azaldu iezadak.  
GURGURIO.– Mozkortuta ere, erraz sumatzen dudalako non den anoa. Horregatik deitzen naute Sumanoa.

Beste pasarte batean, Plautok *ventum* hitzaren erabilera bikoiztasunarekin jokutzen du, *venire* aditzaren partizipio perfektu pasiboa ('etorrera') nahiz *ventus* izenaren akusatiboa izan baitaiteke ('haizea').

#### 3.4.4. *Curculio* 314-316



Ernouten itzulpenean, mantendu egin da hitz-jokoa *bon vent* terminoa erabilia.  
Itzultzaileak oin-ohar bat gehitu du azalpenekin:

**Charançon.** — Par Hercule, je vous en supplie; faites que ce soit un bon vent qui m'amène.

**Palinure.** — Très volontiers. (*Palinure et Phédrome l'éventent*).

**Charançon.** — Qu'est-ce que vous faites, je vous prie?

**Palinure.** — Du vent.

**Charançon.** — Eh! je ne veux pas de votre zéphyr.

**Phédrome.** — Qu'est-ce que tu veux donc?

**Charançon.** — Un bon vent qui m'apporte de quoi m'emplir la panse .

OHARRA: Il y a dans tout ce passage une équivoque sur « uentum », qu'il est difficile de rendre en français. « Facite uentum ut gaudeam peut s'entendre par « Faites-moi du vent pour me réjouir » et par « t Faites en sorte que je me réjouisse d'être arrivé ». C'est à ce dernier sens que songe Charançon; et c'est le premier que feignent de comprendre Phédrome et Palmure. Cf. Cistellaria, v. 16.

(Ernout, 1935)

Kasu honetan jatorrizko testuko eta erabili ditudan bi itzulpen nagusietako *haizea egin* aditzarekin sortzen den gaizki ulertua itzultzeko *aise egin* paronimoaz baliatu naiz, hots-kidetasuna dela eta, hitz-joko bat sortzeko asmotan:

GURGURIO.– Mesedez, aise egizue nire bizitza.

PALINURO.– Ados. (Haizea eman)

GURGURIO.– Zer ari zarete egiten, mesedez?

PALINURO.– Haize egiten.

GURGURIO.– Ez, nik ez diat nahi haizea egiterik.

FEDROMO.– Orduan, zer nahi duk?

GURGUIO.– Jan nahi dut, hemen aise bizitzeko.

Egon dira beste zenbait kasu non hitz-joko bat sortzeko hitzen bat asmatu behar izan dudan. Horietako kasu bat izan da *halophanta* eta *sycophanta* hitzek sortzen duten hitz-jokoaren itzulpena. *Sykophanta* hitzak 'saltzaile, iruzurgile' esanahia du eta, hitz honekin analogiaz, Plautok *halophanta* hitza sortu zuen.

### 3.4.5. *Curculio* 462-463

Jatorrizko testua:

CHO edepol nugatorem lepidum lepide hunc nantust Phaedromus.  
halophantam an sycophantam magis ess' dicam nescio.

Gaztelaniazko Bravoren itzulpenean jatorrizko hitzak gaztelaniara egokitu dira, *halofanta* eta *sicofanta*:

¡Por Pólux, qué hábil comediante ha tenido Fédromo la habilidad de encontrar! ¿Halofanta o sicofanta? No sé qué nombre le conviene más. (...) (Bravo, 1989)

González-Habak, aldiz, *halofanta* hitzarentzat *birlofanta* asmatu du, eta *sicofanta* bere horretan utzi du (soilik grafia egokituta):

#### EL EMPRESARIO

EMP.— Bonito embustero está hecho el tal Gorgojo con el que nos ha salido Fédromo. No sé si le cuadra mejor el nombre de birlofanta o de sicofanta. (González-Haba, 1996)

Ingelesezko itzulpenean, hitzak *trickster* eta *prankster* itzuli dira:

SUP Goodness, it's a charming swindler that Phaedromus has charmingly got hold of. I don't know wheter I should say he's more of a trickster or of a prankster. (...) (De Melo, 2011)

Frantsesezko itzulpenaan *halophante* eta *sycophante* hitzak mantendu egin dira eta oin-ohar baten bidez azaldu ditu itzultzaileak:

#### L'IMPRESARIO

Par Pollux! l'habile hâbleur que Phédrome a eu l'habileté de trouver là! Halophante ou sycophante, je ne saurais dire quel nom lui convient le mieux. (...)

OHARRA: Mot plaisamment forgé par Plaute, sur le modèle de  $\sigma\kappa\omicron\phi\acute{\alpha}\nu\tau\eta\varsigma$ , et dont le sens précis est inconnu. L'abrégé de Festus, p. 90. 24 L, définit: « halapanta ... omnia mentientem, ab eo quod halet omnia ».

(Ernout, 1935)

*Halophanta* hitz asmatuak ez du esanahi argirik, baina *iruzurgile* hitzetik abiatutako hitz asmatua da; bide beretik, *iruzurrontzi* hitza asmatu dut, jatorrizko testuko hitz-jokoaren oihartzuna egiteko:

#### KOREGOA

A zer nolako zortea izan duen Fedromok horrelako komediante ona aurkitzean, ala Polux! Ez dakit zer esan beharko nukeen, iruzurrontzia dela ala iruzurgilea dela. (...)

Hitz asmatuen haritik jarraituta, itzulpenaren beste zati batean, *multibiba* eta *merobiba* hitz konposatu asmatuak itzultzean, antzera jokatu behar izan dut:

#### 3.4.6. *Curculio* 76-79

Jatorrizko testua:

PHAE iam scies.  
anus hic solet cubare custos ianitrix,  
nomen Leaenae est, multibiba atque merobiba.



Gaztelaniazko bi itzulpenetan hitz-jokoa galdu da. Bravoren kasuan, oin-ohar batean esan du ezin izan duela hitz asmatua itzuli; González-Habak, ordea, ez du azalpenik eman:

FEDROMO.— Ahora lo sabrás. Aquí duerme una vieja que está encargada de vigilar la puerta. Se llama Leena, una gran bebedora y bebedora de vino puro.

OHARRA: Lat. *multibiba* y *merobiba*, expresivos compuestos que no hemos podido reproducir. (Bravo, 1989)

FÉD.— Ahora mismo lo verás. Aquí se acuesta de guardia una vieja, la portera, se llama Leona, que le gusta mucho el trinqué, y de vino puro. (González-Haba, 1996)

De Melok ez du hitz-jokorik egin itzulpenean:

PHAE You'll know in a moment. Normally an old woman sleeps here, the guardian and keeper of the door. Her name is Laena. She's a great drinker of undiluted wine. (De Melo, 2011)

Ernoutek *qui boit sec* eta *qui boit bien* esamoldeak erabili ditu frantsesezko itzulpenean:

**Phédrome.** — Tu vas le savoir. La maison a pour gardienne et pour portière une vieille femme, nommée Lééna : une qui boit sec et qui boit bien. (Ernout, 1935)

Euskarazko itzulpenean jatorrizko hitz-jokoa jarraituta, antzera jokatzeko saiatu naiz. Euskaltzindiaren Hiztegian badago *edarizale*, latinezko *multibibaren* itzulpen litzatekeena; horren bidetik, *ardosendozale* asmatu dut. Oin-oharra gehitu dut azalpenarekin:

FEDROMO.— Ikusiko duk. Hemen egiten dik lo atea zaintzeaz arduratzen den atsoak. Leena duk bere izena. Edarizale eta ardosendozalea duk.

OHARRA: Jatorrizko testuan *multibiba* 'asko edaten duen emakumea' eta *merobiba* 'urik gabeko ardoa edaten duen emakumea' hitz konposatu asmatuak azaltzen dira. Itzulpenean, eragin bera sorrarazteko asmoz, *edarizale* eta *ardosendozale* hitz asmatua erabili ditut.

Aurrekoaren antzeko kasu bat izan da *cum bolis*, *cum bulbis* hitz-jokoaren itzulpena ere. Latinezko testua hitzez hitz itzuliz gero, «zure jokaldi eta zure tipulekin» izango litzateke itzulpena. Baina argi dago esaldi horrek ez duela, horrela, zentzurik; eta, seguruenik, Plautok *bulbis/vulvis* paronimoekin jolasten duela.

### 3.4.7. *Curculio* 611-613

Jatorrizko testua:

CVR                    audio.  
Si uis tribus bolis uel in chlamydem.  
THER                    quin tu is in malam crucem  
cum bolis, cum bulbis? Redde etiam argentum aut uirginem.

Gaztelaniazko Bravo itzultzaileak *bulbis* hitzari esanahia aldatu dio eta *chorradas* hitza erabili du:

GORGOJO.— Te oigo. Si quieres, nos jugamos tu clámide en tres tiradas.  
TERAPONTÍGONO.— Vete al infierno con tus tiradas y tus chorradas. Y devuélveme inmediatamente el dinero o la muchacha. (Bravo, 1989)

González-Haba, aldiz, *dados* eta *dedos* hitzen arteko hots-kidetasunaz baliatu da hitz-jokoa itzultzeko. Oin-ohar baten bidez jatorrizko hitz-jokoa aipatu du:

GO.— ¡Y tanto!; si quieres que echemos una partida de dados. Os podemos jugar, por ejemplo, tu capa!

TE.— ¿Por qué no te largas mejor a la horca con tus dados y tus dedos?<sup>15</sup> ¡Devuélveme el dinero o a la joven!

OHARRA: En el texto latino hay también una paronomasia: *cum bolis, cum bullis* (o *bulbis*, como escriben Ernout y Collart con una parte de los manuscritos). (González-Haba, 1996)

De Melok *bulbis* hitza *dishes* itzuli du:

CUR        I'm listening. Three throws of dice, if you like – (eyeing him) well, for your cloak.  
THER        Why don't you go to the hangman with your dice and with your dishes? Give me back the money or the girl now. (De Melo, 2011)

Frantsesezko itzulpenean *tes oignons* mantendu da, oin-ohar baten bidez hitz-jokoa azalduta:

**Charançon.** — J'entends. Ta chlamyde en trois coups de dés, si tu veux.  
**Thérapontigonos.** — Va te faire pendre avec tes dés et tes oignons. Rends-moi vite ou l'argent ou la fille.

OHARRA: Jeu de mots intraduisible sur « bolus » « coup de dés » auquel le militaire ajoute, en paronomase, « bulbus » « bulbe, oignon » Il y a peut-être là un double sens qui nous échappe. Naudet traduit : CH. Si tu veux aussi, jouons une chlamyde en trois coups de cornet. — THER. Va te faire pendre avec tes cornichons et tes concombres. — D'autre, au lieu de « bulbis » lisent « bullis » de « bulla » « bulle » (d'or qu'on suspendait à Rome au cou des enfants de naissance libre et noble).

Nik *jokaldi* hitzaren hots-kidea den hitz bat bilatu nahi izan dut hitz-jokoaren efektua mantendu nahian. *Joaldi* hitza erabiltzea erabaki dut, hots-kidetasuna lortzeaz

gain, latinezko *bulbis/vulvis* ('tipulekin'/ 'potxotxeekin') hitz-jokoak iradoki lezakeen zentzu lizuna ere biltzen duelako (*joaldi* 'larru-joaldi'):

GURGURIO.– Entzuten dizut. Nahi baduzu zure klamidea jokatu dezakegu hiru jokalditan.

TERAPONTIGONO.– Hoa infernura hire jokaldi eta joaldiekin. Bueltatu oraintxe bertan dirua edo neskatxa.

Plautok bi pasartetan baliatu du latineko *testis* hitzaren zentzu bikoitza, alde batetik 'testigu' esanahia baitauka, eta beste alde batetik 'testikulu'.

Lehenengo pasartean honela jokatu du:

### 3.4.8. *Curculio* 27-32

Jatorrizko testua:

PAL ego item uolo.

ita tuom conferto amare semper, si sapis,

ne id quod ames populus si sciat, tibi sit probro.

semper curato ne sis intestabilis.

PHAE quid istuc est uerbi?

PAL caute ut incendas uia:

quod amas amato testibus praesentibus.

Gaztelaniazko itzulpenetan *testigo* hitzarekin bi esanahiak eman dira aditzera. Bravoren kasuan, oin-oharra eman behar izan du, 'testikulu' adiera ez baita ohikoa:

PALINURO.– Eso quiero yo también. Si tienes cabeza, has de encauzar tus amores de tal manera que si la gente llega a saber a quién amas, ello no sea motivo de deshonra para ti. Procura sobre todo no quedarte sin testigos.

FÉDROMO.– ¿Y qué quieres decir con eso?

PALINURO.– Que andes con cautela; si haces el amor, hazlo con testigos presentes.

OHARRA: "Testigos" quiere tener el doble sentido de "testigos" y "testículos" (posible este último en castellano, pero poco frecuente) que tiene en latín *testis*. Tratamos así de reproducir el juego de palabras del texto latino.

(Bravo, 1989)

González-Habaren kasuan, *testi...* laburdurarekin eman du aditzera 'testikulu' adiera, baina ez du azalpenik eman:

PA.— Lo mismo digo. Si es que tienes dos dedos de frente, debes procurar orientar tus amores en forma que no te resulte una deshonra para el caso de que la gente se entere de cuál es el objeto de ellos. Mucho cuidado siempre con los testi..., con los testigos.

FÉD.— ¿Qué quieres decir con eso?

PA.— Pues quiero decir que te andes con pies de plomo. Lo que ames, ámalo con testi..., con testigos. (González-Haba, 1996)

Ingelesezko itzulpenean, *testify* eta *testifier* hitzak erabili dira, eta ezinbestekoa izan du oin-oharra:

PAL I wish so too. If you're smart, always handle your love in such a way that if the people know the object of your love it isn't a disgrace for you. Always make sure you can call on someone to testify.

PHAE What do you mean?

PAL Tread carefully on your road: love what you love in the presence of your testifiers.

OHARRA: *Testis* can mean “witness” as well as “testicle”. Adulterers could be castrated.

(De Melo, 2011)

Frantsesezko itzulpenean *témoignage* eta *témoins* hitzak erabili ditu Ernout itzultzaileak, eta azaldu egin behar izan du oin-ohar baten bidez:

**Palinure.** — Je dis comme toi. Aie soin toujours de placer tes amours, si tu veux agir en sage, de façon que, si les gens viennent à les connaître, tu n'en sortes pas déshonoré. Prends toujours bien garde de conserver ton pouvoir de témoignage (2).

**Phédrome.** — Que veux-tu dire par là?

**palinure.** — Ne t'avance pas à la légère; si tu fais l'amour, tâche, en le faisant, de le faire par devant de bons témoins.

OHARRA: Jeu de mots sur « instabilis », adjectif dérivé de « testis » qui signifie à la fois « témoin », et « testicule » L'équivoque se retrouvera au v. 32 et au v. 622 dans « instattatus ». La castration pouvait être le châtement de l'adultère.

(Ernout, 1996)

Euskaraz ez daukagu bi esanahi hauek biltzen dituen hitzik, baina bi paronimoez baliatu naiz eta zentzu bikoitza iradoki nahi izan dut *testigutxo* hitzarekin. Nahiz eta *testikulu* hitza ez dudan erabili, iruditzen zait «-txo» atzizkiarekin eta aktoreak izango lukeen ironia antzezteko moduarekin zentzu bikoitza ulertu daitekeela. Baina niretzat ere ezinbestekoa izan da oin-oharra:

PALINURO.— Horixe nahi dut neuk ere. Zuhurra bazara, maita ezazu, jendeak nor maite duzun jakinez gero, zuretzat desohorea ez izateko moduan. Beti saia zaitez testigutxorik gabe ez geratzen.

FEDROMO.— Zer esan nahi duk horrekin?

PALINURO.— Kontuz ibiltzeko; maitasuna egiten baduzu, egin ezazu testigutxoekin.

OHARRA: «Testigutxo» hitzarekin latineko *testis* hitzak duen zentzu bikoitza («testigu» eta «testikulu») iradoki nahi izan dut; aktoreak hankartea seinalatuko luke nolabait (eskuekin, begiradarekin...), hitz hori esatean. Hitz-joko honekin Palinurok adulterioan harrapatua izateak dituen arriskuei buruz hitz egiten dio Fedromori, alde batetik, testiguak aurkeztek eskubiderik gabe geratzea eta, bestetik, adulterioaren zigorra, kastrazioa.

Bigarren pasartean ere antzera jokatu dut:

### 3.4.9. *Curculio* 621-623

Jatorrizko testua:

PHAE Licet [te] antestari?

THER Non licet.

PHAE. Iuppiter te, miles, perdat, intestatus vivito.

at ego, quem licet, te. accede huc.

Bravoren itzulpenean, aurreko pasartean bezala, *testigos* hitza erabili da, testikuluen aipamena oharrerako utzita, hain zuzen aurreko pasartea aipatuz:

FÉDROMO.— ¿Estás en condiciones de presentar testigos?

TERAPONTÍGONO.— No quiero.

FÉDROMO.— ¡¿Qué Júpiter te confúnda y te quedas para siempre sin testigos!!] (A GORGOJO.)

Pero yo puedo presentarte a ti: acércate aquí.

OHARRA: Ernout y otros editores consideran este verso interpolado. Sobre los «testigos», cfr. n. 6. En general sobre todo este pasaje de difícil interpretación, cfr. Paratore, E., «*Antestor* nel *Curculio* en el *Poenulus*», *Dioniso*, 36 (1962), 98-122.

Antzera egin du González-Habak:

FÉD.— ¿Vamos a tomar testigos?

TE.— No es posible.

FÉD.— ¡Maldito seas! Renuncia si quieres a los testigos. (A Gorgojo.) Pero yo puedo recurrir a tu testimonio, ¡ven para acá!

OHARRA: Se entiende: «de que te niegas a ir». Cf. Ley de las XII Tablas, según PORFIRIO, Comentario a las Sátiras de Horacio 19, 76; vid. también Persa 745 ss., *Poenulus* 1229 ss.

Ingelesezko itzulpenean, aldiz, De Melok, aurreko pasartean ez bezala, *testicles* hitza erabili du. Oin-ohar bat gehitu du *testis* hitzaren bi adierak aipatuta:

PHAE (*still to the soldier*) Can you testify?

THER No, I can't.

PHAE May Jupiter ruin you, soldier; live without your testicles then. (*to Curculio*) But I, who can, tak you as my witness. Come here. (*touches his ear*)

OHARRA: Lat. *testis* can mean “witness” as well as “testicle.”

Ernout ere oin-ohar batez baliatu da *intestatus* hitzaren zentzu bikoitza aipatzeko:

**Phédrome.** — Peut-on prendre des témoins?

**Thérapontigonus.** — Impossible!

**Phédhome.** — [Que Jupiter te maudisse, et te frappe à jamais de nullité]. (A *Charançon*) Mais moi, je puis recourir à ton témoignage, et je l'invoque : approche de mon côté.

OHARRA: Vers sans doute interpolé, avec un calembour sur « intestatus » qui présente le même double sens que « testis ».

Hona hemen nire itzulpena, oin-oharrean aurreko pasarte gogoraraziz:

FEDROMO.— Testigurik ba al daukazu?

TERAPONTIGONO.— Ez, ez daukat.

FEDROMO.— Jupiterrek kaltetu zaitzala, soldadu; gera zaitetz betiko testigutxorik gabe. (*Gurguriori*) Hi izango haiz nire testigua. Hator hona.

OHARRA: Latinez *testis* hitzak «testigu» eta «testikulu» esanahiak ditu. Hemen, gorago bezala (30-32 bertso-lerroetan), *testigutxo* eman dut euskaraz, zentzu bikoitza duenean.

Pasarte honetan, *oculissimum...occlusissimum* hitz-jokoa itzultzean, ironia puntuak eta hots-kidetasunak garrantzia handia dutela iruditu zait; izan ere, *oculissimum* oso superlatibo bitxia baita, izen batean oinarritua (ez adjektibo batean).

#### 3.4.10. *Curculio* 15-18

Jatorrizko testua:

PHAE huic proximum illud ostium <est> oculissimum.  
salve, ualuistin?

PAL ostium occlusissimum,  
caruitne febris te heri uel nudiustertius  
et heri cennaustine?

Gaztelaniazko itzulpenetan, *-ísima* atzizkiaz baliatuta, mantendu egin dute hots-kidetasuna:

FÉDROMO.— (Señalando la casa de CAPADOCIO.) A su lado está esa puerta queridísima. (Dirigiéndose a la puerta.) ¡Salud! ¿Cómo te encuentras?

PALINURO.— (Remedando a FÉDROMO.) Puerta cerradísima, ¿has estado sin fiebre ayer o anteayer? ¿Has cenado ayer? (Bravo, 1989)

FÉD.— y ahí al lado, la puerta esa tan queridísima. (Dirigiéndose a la puerta con un

gesto de saludo.) Buenas noches, ¿Qué tal estás?

PA.— (Imitando y continuando burlón el saludo de su amo.) ¡Oh, puerta cerradísima!, ¿has estado sin fiebre ayer o antes de ayer?, ¿qué tal la cena de anoche? (González-Haba, 1996)

Ingelesezko itzulpenean ere hots-kidetasuna mantentzea lortu du itzultzaileak *most* erabiliz:

PHAE Next to it is that door most dear. (still at a distance from the pimp's door) Greetings, have you been well?

PAL Door most shut, did the fever spare you yesterday or the day before and did you have dinner yesterday? (De Melo, 2011)

Ernouten itzulpenean, aldiz, ez da hitz-jokoa itzuli. Aipatzekoa da frantsesezko testuan *ô porte hermétiquement close* hitzak Fedromorenak direla, gainontzeko testuetan, aldiz, Palinurorenak dira. Itzultzaileak oin-ohar bat gehitu du testua ez dela ziurra esanaz:

**Phédrome** (*montrant la maison de Cappadox*). — Et tout auprès, cette porte, qui m'est plus chère que mes yeux. Salut ! Comment t'es-tu portée, ô porte hermétiquement close?

**Palinure** (*se tournant aussi vers la porte, et contrefaisant Phédrome*). — Tu n'as pas eu la fièvre hier ou avant-hier? El hier, as-tu bien dîné?

OHARRA: Texte peu sûr.

Nire itzulpenerako, ironia eta hots-kidetasuna mantentzeko asmotan, *maite-maite... itxi-itxi* errepikapena erabili dut, esanahia mantentzeaz gain, eragiten duen efektua ere berdintsua baita itzulpenean. Kasu honetan, Delabastitaren sailkapenean, hitz-jokoaren lekuan antzeko tresna erretoriko bat erabiltzea izango litzateke:

FEDROMO.— (Kapadoziarren etxea seinalatu) Bere ondoan ate maite-maite hori zagok. (Ateari hitz egin) Agur! Ongi ibili al zara?

PALINURO.— (Fedromo imitatu) Ate itxi-itxi horrek, sukarra izan al zenuen atzo edo herenegun? Afaldu al zenuen atzo?

OHARRA: Latinezko testuko *oculissimum... oclusissimum* hitz-jokoa itzultzean, jatorrizkoak duen ironia puntua eta hots-kidetasuna mantentzeko asmoz, itzulpenean «maite-maite... itxi-itxi» hitz-jokoa erabili dut.

Ikusi den moduan, hitz-jokoak itzultzerakoan erabili dudak beste bide bat edizio tekniken erabilpena (oin-oharrak gehitzea) izan da, beti ere gainerako teknikekin batera, ez bera soilik. Itzultzerakoan egindako prozesua azaltzeko baliatu naiz oin-oharrez, hitz-jokoak azaltzeko, irakurlearen ulermena errazteko asmoz.

### 3.5. Hitanoa

Erregistroari dagokionez, hitanoa erabili ala ez erabaki behar izan dut etengabe itzulpena egiterako orduan. Testua antzezlan bat denez, pertsonaia ezberdinek elkarrekin hitz egiten dute eta, hala, egoera ezberdinak suertatzen dira. Hainbat faktorek eragiten dute pertsonaia batek beste batekin edo bere buruarekin hitz egitean hitanoa erabili ala ez erabakitzeke. Hala ere, ahalik eta gutxien erabiltzeko erabakia hartu nuen hasieratik, beraz, soilik begi bistakoak diren egoeretan erabili dut.

Gaur egungo egoera soziolinguistikoari erreparatuta, esan daiteke hitanoa konfiantzazko egoera batean erabiltzen dela, brometarako, esaterako. Hitanoa ez erabiltzeak, aldiz, errespetua adierazten du, seriotasuna:

Banaka batzuek hitanoa txantxetarako erabiltzen dute; gai serio eta astunak erabiltzerakoan, berriz, zuka (eztabadaka) erregistrora jotzen dute. (Alberdi, 1993: 434)

Hala ere, testuinguruak eragin handia du hitanoa erabili ala ez erabakitzeke. Testuinguru hori hainbat elementuk osatzen dute eta, beraz, elementu ezberdin horiei erreparatu behar izan diet egoera bakoitzean hitanoa erabili ala ez erabakitzeke. Esaterako, pertsonaien maila soziala, generoa eta adina, pertsonaien arteko erlazioa, pertsonaiek zer gairi buruz hitz egiten duten, eta abar.

Beraz, testuingurua ez da tokia edo unea bakarrik: zein kategoriatako solaskideen eta zenbat solaskideren aurrean gauzatzen den, norabide desberdinak hartuko ditu hizketak. (Alberdi, 1993: 435)

Honako hauek izan dira itzulpena egitean aintzat eduki ditudan irizpide nagusiak:

#### 3.5.1. Genero nahasketa

Elkarrizketetan genero nahasketa gertatzen denetan hitanoa ez erabiltzeko aukera hartu dut. Izan ere, orain arte emakume eta gizonen arteko elkarrizketetan gutxiago erabili da hitanoa genero berekoen artean baino, eta erabiltzekotan emakumeak hika egin izan dio gizonari eta gizonak zuka emakumeari.

Beti ere, errazago gertatuko da simetria sexu berekoen artea, sexu desberdinekoen artean baino. (Alberdi, 1993: 436)

Asimetria gertatuz gero, aiseago gertatzen da emakumearen alde (hots, emakumeak hika gizonari eta beronek zuka itzuli emakumeari). (Alberdi, 1993: 436)



Hala ere, esan beharra dago datu hau tokiaren arabera alda daitekeela, tokian tokiko ohituren arabera.

Gaur egun bizi dugun etengabeko eraldaketaren ondorioak ere izan ditu hitanoaren erabilerak, batez ere generoari dagokionez. Badaude ohiturak kritikatu dituztenak, eztabaida sortuz, orain arte egin izanak ez gaituela hemendik aurrera egitera derrigortzen argudiatuta.

Eztabaida honen aurrean, genero nahasketa duten elkarrizketetan hitanoa ez erabiltzeko erabakia hartu dut.

### 3.5.2. Maila soziala

Itzulitako testua Plautoren komedia bat dela kontuan hartuta, maila soziala irizpide oso garrantzitsua izan da. Pertsonaia ezberdinen maila sozialak eta hauen arteko desberdintasunak oso esanguratsuak dira eta, ondorioz, hitanoa erabili ala ez erabakitzerakoan, sarritan hartu behar izan dut kontuan beren maila soziala.

Esklavo eta nagusien erlazioetan argi izan dut hasieratik zein erregistro erabiliko nuen pertsonaia mota hauen elkarrizketetan. Hitanoa ez erabiltzea errespetuaren erakusle denez, argi dago esklavo batek bere nagusiari errespetu osoz hitz egin behar diola eta, beraz, kasu hauetan hitanoa ez erabiltzea hautatu dut (adibidez, Palinuro Fedromori zuzentzerakoan). Alderantziz egin dut nagusiak bere esklavo, parasito edota maila baxuagoko pertsona bati hitz egiten dionean (adibidez, Fedromo Palinuro edo Gurguriori zuzentzerakoan). Kasu horietan hitanoa erabili dut.

Behe mailako pertsonaien arteko elkarrizketetan hitanoa erabili dut (adibidez Gurgurio eta Palinuroren arteko elkarrizketetan). Goi mailakoek beren artean, ordea, ez dute hika egingo (Kapadoziar eta Likonen artean, esaterako).

### 3.5.3. Adina

Adina ere kontuan hartzeko irizpidea iruditu zait, hitanoa erabiltzerako orduan eragin handiena duena izan daitekeelako orokorrean.

Bistan da euskalduna bere adinkideari aiseago zuzenduko zaiola hika, bera baino askoz zaharragoari baino. (Alberdi, 1993: 435)

Itzulpen honetan, *Leena* pertsonaiak dituen elkarrizketak izan dira adina kontuan hartu beharreko kasu nabarmenena. Zalantzak izan ditut pertsonaiaren zein ezaugarri

gailendu erabiliko nuen erregistroa aukeratzeko. Alde batetik, emakume hau prostituta mozortia da. Ezaugarri horiek kontuan hartuz gero, pertsonaiaren kategoriaren ondorioz, berari hika zuzentzea litzateke aukera egokia. Beste alde batetik, aldiz, atsoa da, emakume adindua. Azken ezaugarri hori kontuan hartuz gero, gainontzeko pertsonaiak baino helduagoa denez, adinekoei izan behar zaien errespetuaren erakusle, hari zuzenduriko esaldietan ez nuke hitanoa erabili beharko.

Euskaldun batzuk lau-pabost urte gorabehera hika aritzen dira; beste batzuek, ordea, belaunaldia-edo hartzen bide dute adinekoari errespetua erakustearren: (...). (Alberdi, 1993: 435)

Azkenean, geneadinari lehentasuna ematea erabaki dut, hau da, hitz egiten zaion pertsonaia nagusiagoa denean hitanoa ez erabiltzea.

#### 3.5.4. Bakarrizketak

Bakarrizketek toki garrantzitsua hartzen dute antzezlanetan. Autorea bakarrizketez baliatzen da pertsonaiek lanean zehar jorratzen diren gaien inguruan dauzkaten iritzi zein pentsamenduak plazaratzeko. Ikusleekin kontaktuan jartzeko era bat da, gai baten inguruko informazioaren berri emateko, modu pasiboan (pertsonaiak beren baitan hitz egiten dutenean) edo aktiboan (pertsonaiak zuzenean publikoari hitz egiten dionean; adibidez, Koregoaren bakarrizketa).

Hitanoak bakarrizketetan duen presentzia ere handia da, kasu hauetan erabili izan baita gehien erregistro hau:

Beste kontu jakingarri bat bakarrizketarena dugu. Izan ere, teorien hitanoaren edo T-ren probabilitaterik handiena nor bere buruari hitz egiterakoan eta anaia bikien artean gertatzen omen da. (Alberdi, 1993: 439)

Horren ondorioz, bakarrizketetan hitanoa erabiltzearen hautua egin dut, pertsonaiak maskulinoak zein femeninoak izan. Komedia honetan, zailtasun handiena izan da identifikatzea elkarriketen barruan txertaturik diren “bakarrizketak”.

Ondorengo taulan adierazten da antzezlaneko pertsonaiek elkarren artean hitz egiteko hitanoa erabiltzen duten ala ez. Zergatia azaltzeko, azaldu berri ditudan irizpideak aipatu ditut.

<b>Nork</b>	<b>Nori</b>	<b>Hitanoa</b>	<b>Zergatik</b>
Fedromo	Palinuro	Bai	Maila soziala
Palinuro	Fedromo	Ez	Maila soziala
Fedromo	Atea	Ez	Irizpideetatik kanpo <sup>3</sup>
Fedromo	Leena	Ez	Adina Genero nahasketa
Leena	Fedromo	Ez	Genero nahasketa
Palinuro	Leena	Ez	Adina Genero nahasketa
Leena	Palinuro	Ez	Genero nahasketa
Fedromo	Planesia	Ez	Genero nahasketa
Planesia	Fedromo	Ez	Genero nahasketa
Palinuro	Planesia	Ez	Genero nahasketa
Kapadoziar	Palinuro	Bai	Maila soziala
Palinuro	Kapadoziar	Ez	Maila soziala
Sukaldaria	Palinuro	Bai	Maila soziala
Palinuro	Sukaldaria	Bai	Maila soziala
Kapadoziar	Sukaldaria	Bai	Maila soziala
Sukaldaria	Kapadoziar	Ez	Maila soziala
Gurgurio	Fedromo	Ez	Maila soziala
Fedromo	Gurgurio	Bai	Maila soziala
Palinuro	Gurgurio	Bai	Maila soziala
Gurgurio	Palinuro	Bai	Maila soziala
Likon	Gurgurio	Bai	Maila soziala
Gurgurio	Likon	Ez	Maila soziala
Gurgurio	Planesia	Ez	Genero nahasketa
Planesia	Gurgurio	Ez	Genero nahasketa Maila soziala
Likon	Kapadoziar	Ez	Maila soziala
Kapadoziar	Likon	Ez	Maila soziala
Likon	Planesia	Ez	Genero nahasketa
Planesia	Likon	Ez	Genero nahasketa
Terapontigono	Likon	Ez	Maila soziala

<sup>3</sup> Fedromok errespetu osoz hitz egiten dio ateari, beraz, hitanoa ez erabiltzea erabaki dut.

Likon	Terapontigono	Ez	Maila soziala
Terapontigono	Kapadoziar	Ez	Maila soziala
Kapadoziar	Terapontigono	Ez	Maila soziala
Terapontigono	Planesia	Ez	Genero nahasketa
Planesia	Terapontigono	Ez	Genero nahasketa
Terapontigono	Fedromo	Ez	Maila soziala
Fedromo	Terapontigono	Ez	Maila soziala

### 3.6. Kultur erreferentziak

Kultur erreferentziei dagokienez, itzulpena zer irakurle motari zuzendua dagoen gogoan hartu dut uneoro sortutako testua idazterakoan. Zenbait izenek, esaerak eta terminok azalpena behar zutela iruditu zaidan kasuetan oin-oharrez baliatu naiz azalpenak emateko. Oin-oharren helburua irakurlearen ulermena erraztea da, antzezlanara ondo ulertzeko gai izateko informazio osoa testuan bertan edukitzea.

Adibide gisa aipatu ditzaket *mina* eta *talentu* diru-izenak. Azalpen bat eskatzen dute bi termino hauek, ez baitira gure ohiko hiztegian sartzen. Hona hemen idatzi ditzkiedan oin-oharrak:

OHARRA: Mina diru baten izena da. Gutxi gorabehera, 60 minak talentu baten balioa zuten. (Gurgurio 64)

OHARRA: Talentua Antzinateko moneta-unitatea zen. Talentu batek 60 minaren balioa zuen. Prostituta baten ohiko prezioa 20 eta 30 mina ingurukoa izaten zen, zenbait kasutan 40 mina. Andraketariak batzuetan haren prezioa eskatzen du, beste batzuetan, aldiz, bikoitza. «Talentu handi» (*talentum magnum*) esandakoan Plautok talentu atikar bat adierazi nahi du, Greziako zenbait tokitan talentuak balio handiagoa (80 mina) baitzuen Atenasen baino. (Gurgurio 65)

Oin-oharra eskatzen duten esamoldeen adibidetzat aipatu dezaket «epailearen aurrean atzerritar batekin hitzordua izatea», azalpenik izan ezean, ez baita ulertzen garai hartan ekintza honek zuen garrantzia:

OHARRA: Epailearen aurrean atzerritar batekin hitzordua izateak garrantzi handia zuenez, kasu honetan, Fedromoren eginkizunak hain dira premiazkoak non hitzordu hori ez den eginkizunak ez egiteko justifikazioa.

Honako hauek izan dira oin-ohar bidez azaldu ditudan termino eta esamoldeak:

- Eskulapio

- Eskulapioren santutegia
- Epaile baten aurrean atzerritar batekin hitzordua izan
- Mina
- Talentu
- Kios
- Filipoak
- Orikalkoa
- Lau putre jaurti
- Erregearen jokaldia
- Kokliteak
- Sizion
- Paflagoniarrak
- Sinopearrak
- Arabiarrak
- Kariarrak
- Kretarrak
- Siriarrak
- Rodas
- Lizia
- Komiziora joan
- Kloazinaren tenplua
- Ubidea
- Lakua (*Curtius*)
- Denda zaharrak
- Kastorren tenplua
- Kale etruskoa
- Velabro
- Belarriak ukitzea
- Jai dionisiarrak

#### 4. Itzulpena

### **GURGURIO**

#### **PLAUTO**

#### **PERTSONAIAK<sup>4</sup>**

PALINURO (Fedmoren esklaboa)

FEDROMO, mutil gaztea (Planesiaren maitalea)

LEENA, atsoa (Kapadoziarren esklaboa)

PLANESIA, neska gaztea (Fedmoren maitalea)

KAPADOZIAR, andraketaria<sup>5</sup>

SUKALDARIA

GURGURIO, parasitoa<sup>6</sup> (Fedmorena)

LIKON, bankaria

KOREGOA<sup>7</sup>

TERAPONTIGONO, soldadua

Ekintza Epidauron<sup>8</sup> gertatzen da. Agertokiaren atzealdean Fedromo eta Kapadoziarren etxeak azaltzen dira eta, hauen artean, Eskulapioren santutegia<sup>9</sup>. Kapadoziarren etxearen aurrean Venusi eskainitako aldare bat dago.

---

<sup>4</sup> Plautoren pertsonaien izenak askotan mintzodun izenak dira eta esanahiren bat dute, grekoz nahiz latinez.

<sup>5</sup> Andraketaria emakumezko esklaboak prostituziora bideratzen zituen merkataria zen, askotan atzerritarra.

<sup>6</sup> Parasitoa komedia honetako pertsonaia barregarriena da. Gose izaten denez, edozer umiliazio jasateko prest egoten da janari pixka bat lortzeko. Gurgurioren kasuan esklabo azkarraren papera hartzen du, azpijokoa aurrera eramaten baitu.

<sup>7</sup> Antzerki erromatarrean, koregoa aktoreen jantziez eta osagarriez arduratzen zen diruduna zen; lehenago, Greziako antzerkian, antzezkitzuneke koroa antolatua eta babesten zuena zen, eta hortik hartu zuen izena.

<sup>8</sup> Epidauro Peloponeson zegoen hiri txikia zen. Asklepios edo Eskulapioren santutegiagatik eta teatroagatik da ospetsua.

<sup>9</sup> Eskulapio (greziarren Asklepios) medikuntzaren jainkoa da. Bere santutegi ezagunena Epidauron zegoen, baina hiritik hainbat kilometrotara, ez erdigunean, nahiz eta Plautok, egiantzekotasunaz kezkatu gabe, hori ematen duen aditzera.

## ARGUMENTUA

Gurgurio Kariara joan da diru bila, Fedromok bidalita.

Ugazabaren aurkariari eraztuna lapurtu dio bertan, eta  
eraztuna erabili du idatzi duen gutuna zigilatzeke.

Galdetu ere egin gabe, Likonek ikusi bezain laster ezagutu du soldaduaren zigilua.

Une horretan, andraketariak bere neska-laguna aska dezan, ordaina emango dio, baina 5  
andraketaria eta Likon epailearen aurrera eramango ditu soldaduak.

Intzestuaren berri izango du soldaduak, ordea, maite duen neska gaztea bere arreba baita.

Onartu egingo du Fedromoren eta bere arrebaren arteko ezkontza, arrebak eskaturik.

## LEHEN EKITALDIA

### LEHEN AGERRALDIA

#### PALINURO, FEDROMO

*(Fedromo apain-apain jantzita irten etxetik, eskuan kandela piztua duela, Venusi eskaintza bat egiteko ardo pegar bat eta beste objektu batzuk daramatzan esklabo talde batek lagunduta)*

PALINURO.– Fedromo, jakin al daiteke nora zoazen gaueko ordu hauetan jantzi horiekin eta jarraigo horrek lagunduta<sup>10</sup>?

FEDROMO.– Venusek eta Cupidok agindu eta Amodioak aholkatzen didan tokira. Gauerdian zein arratsean, nahiz epailearen aurrean atzerritar batekin hitzordua daukazun 5 egunean<sup>11</sup>, haiek agindutako tokira joan behar duk, baita gogoz kontra ere.

PALINURO.– Laburturik, laburturik...

FEDROMO.– Laburturik, astuna haiz gero!

PALINURO.– Egiten duzun hori ez da polita, ez eta kontatzekoa ere. Zeure buruaren esklabo gisa jokutzen ari zara! Eta, hain dotore, kandela piztua zeuk eramatea ere!

---

<sup>10</sup> Eszenan zehar esklabo bakarra aipatzen denez, autore batzuek ulertu dute hemen *jarraigo* bat aipatzea erreferentzia ironikoa dela, Fedromok ez zuelako inolako jarraigorik izan.

<sup>11</sup> Epailearen aurrean atzerritar batekin hitzordua izateak garrantzi handia zuenez, kasu honetan, Fedromoren eginkizunak hain dira premiazoak non hitzordu hori ez den eginkizunak ez egiteko justifikazioa.

FEDROMO.– Zergatik ezin diot, ba, argizari zati hau, erletxoan lanaren fruitua dena, 10  
gozotik sortua, neuk eraman nire ezti gozoari?

PALINURO.– Baina, nora zoaz?

FEDROMO.– Galdetuko bahit, esango niake, jakin hezan.

PALINURO.– Galdetuko banizu, zer erantzungo zenidake?

FEDROMO.– Hau Eskulapioren santutegia duk.

PALINURO.– Duela urtebete baino lehenagotik dakit hori.

FEDROMO.– (*Kapadoziarren etxea seinalatu*) Bere ondoan ate maite-maite hori zagok. 15  
(*Ateari hitz egin*) Agur! Ongi ibili al zara?

PALINURO.– (*Fedromo imitatu*) Ate itxi-itxi<sup>12</sup> horrek, sukarra izan al zenuen atzo edo herenegun? Afaldu al zenuen atzo?

FEDROMO.– Niri adarra jotzen al habil?

PALINURO.– Orduan, zoro hori, zergatik ari zara ate bati hitz egiten?

FEDROMO.– Ez diat horren ate eder eta sotilik inoiz ezagutu. Ez dik sekula hitz bat ere 20  
esaten: irekitzen denean, isilik (*emozioz*); gauez neska hura ezkutuan etortzen denean ni ikustera, isilik.

PALINURO.– Ez zara zuretzat edo zure familiarentzat iraingarria den ezer egiten ariko, ezta, Fedromo? Ez zara emakume zintzo bati edo hala izan behar duen bati segada 25  
prestatzen ariko, ezta?

FEDROMO.– Ez horixe! Eta Jupiterrek ez diezadala utzi!

PALINURO.– Horixe nahi dut neuk ere. Zuhurra bazara, maita ezazu, jendeak nor maite duzun jakinez gero, zuretzat desohorea ez izateko moduan. Beti saia zaitez 30  
testigutxorik<sup>13</sup> gabe ez geratzen.

FEDROMO.– Zer esan nahi duk horrekin?

PALINURO.– Kontuz ibiltzeko; maitasuna egiten baduzu, egin ezazu testigutxoekin.

FEDROMO.– Baina hor bizi dena andraketari bat duk eta!

PALINURO.– Hortaz, dirua izanez gero, inork ez dizu salgai dagoena erosteko oztoporik jarriko. Inork ezin dio inori debekatu bide publikotik ibiltzea. Betiere ibilbidea 35  
hesitutako baratze batetik ez bada igarotzen, betiere ibilbidean neska ezkondurik,

<sup>12</sup> Latinezko testuko *oculissimum... oclusissimum* hitz-jokoa itzultzean, jatorrizkoak duen ironia puntua eta hots-kidetasuna mantentzeko asmoz, itzulpenean *maite-maite... itxi-itxi* hitz jokoa erabili dut.

<sup>13</sup> *Testigutxo* hitzarekin latineko *testis* hitzak duen zentzu bikoitza ('testigu' eta 'testikulu') iradoki nahi izan dut; aktoreak hankartea seinalatuko luke nolabait (eskuekin, begiradarekin...), hitz hori esatean. Hitz-joko honekin Palinurok adulterioan harrapatua izateak dituen arriskuei buruz hitz egiten dio Fedromori, alde batetik, testiguak aurkezteko eskubiderik gabe geratzea eta, bestetik, adulterioaren zigorra, kastrazioa.



emakume alargunik, dontzeilarik, gazterik eta mutiko librerik ez badago, maita ezazu nahi duzuna.

FEDROMO.– Hau proxeneta baten etxea duk.

PALINURO.– Doala pikutara!

FEDROMO.– Zergatik...?

40

PALINURO.– (*Fedromok galdera amaitu aurretik erantzun*) Bere esklabotza iraingarria delako.

FEDROMO.– (*Ironiarekin*) Ongi, eten iezadak.

PALINURO.– Ados, atsegin handiz.

FEDROMO.– Isilduko al haiz behingoz?

PALINURO.– Ez al didazu, ba, eteteko eskatu?

FEDROMO.– Ba orain debekatu egiten diat. Esaten ari ninduan bezala, emakume gaztetxo bat zaukak esklabo.

PALINURO.– Etxe honetan bizi den andraketariari buruz ari zara, ezta?

FEDROMO.– Ongi harrapatu duk.

PALINURO.– Ihes egingo duen beldurrik ez izateko harrapatu ere.

45

FEDROMO.– Astuna haiz benetan. Horrek neskatoa prostituta bihurtzea nahi dik. Neskatoak maite naik. Baina nik ezin diat ordainetan<sup>14</sup> horrelakorik egin.

PALINURO.– Zergatik?

FEDROMO.– Jada guztiz berea naizelako. Berak ni beste maite diat nik bera.

PALINURO.– Ez da gauza ona ezkutuko maitasuna: hondamena besterik ez dakar.

FEDROMO.– Arrazoi osoa duk, ala Herkules!

50

PALINURO.– Eta uztarria izan du gainean<sup>15</sup>?

FEDROMO.– Niri dagokidanez, nire arreba izango balitz bezain garbia duk, musu batzuek bere garbitasuna kaltetu ez baditek behintzat.

PALINURO.– Ez ahaztu kearen ondoan beti izaten dela sua. Eta egia da keak ez duela erretzen, baina suak bai. Intxaur bat jan nahi duenak lehenengo eskola apurtzen du. Bere lagunarekin oheratu nahi duenak musu batzuekin hasten du bidea.

55

FEDROMO.– Baina bera garbia duk eta oraindik ez duk gizonekin oheratzen.

PALINURO.– Sinistuko nizuke andraketari baten etxean garbitasunik balego.

---

<sup>14</sup> Jatorrizkoan Fedromok *mutuom* erabiltzen duenean bi zentzutan ulertu daiteke: neskatoak bera maite duelako maiteko luke berak ere neskatoa, edota diruz ordainduta maitatuko luke. *Ordainetan* hitzarekin bi zentzuak iradoki nahi izan ditut.

<sup>15</sup> Metafora erotikoa da.

FEDROMO.– Baina, zer dela uste duk? Niganaino ezkutuan etortzeko aukera duen bakoitzean, musutxo bat eman eta ihes egiten dik. Andraketari hori duk guztiaren 60 errudun, bere gaixotasunaren ondorioz Eskulapioren santutegian ohean dagoen hori, oinazeturik naukan hori.

PALINURO.– Zergatik?

FEDROMO.– Batzuetan neskatoagatik hogeita hamar mina<sup>16</sup> eskatzen zizkidak, bestetan talentu handi<sup>17</sup> bat; eta ez diat sekula beregandik justizia edo ezer onik jasotzen. 65

PALINURO.– Zeurea da errua, andraketari batengandik jasotzea ezinezkoa dena jasotzea espero duzulako beragandik.

FEDROMO.– Nire parasittoa Kariara<sup>18</sup> bidali berri diat, dirua maileguan eskatzera nire lagun on bati. Eskatutakoa ekartzen ez badit, ez zakiat norantz jo beharko dudan.

PALINURO.– Jainkoak agurtu nahi badituzu, uste dut eskuinetara. (*Venusen 70 aldarerantz seinalatu*)

FEDROMO.– Bai, ikusten al duk ate aurrean dagoen aldare hori? Ba promes egin diat Venusek nirekin izango duela gosaria<sup>19</sup>.

PALINURO.– Zurekin? Zeu izango zara Venusen gosaria?

FEDROMO.– Bai, ni, hi eta (*ikusleak seinalatu*) hauek guztiak.

PALINURO.– Zuk Venusek botaka egitea nahi duzu!

FEDROMO.– (*Ardoa daraman esklaboari*) Gazte, emadak pegarra. 75

PALINURO.– Zer egingo duzu?

FEDROMO.– Ikusiko duk. Hemen egiten dik lo atea zaintzeaz arduratzen den atsoak. Leena duk bere izena. Edarizale eta ardosendozalea<sup>20</sup> duk.

PALINURO.– Esan zenezake bera dela pitxerren artean lehena<sup>21</sup>, Kiosko<sup>22</sup> ardoa gordetzeko erabiltzen dena!

---

<sup>16</sup> Mina diru baten izena da. Gutxi gorabehera, 60 minak talentu baten balioa zuten.

<sup>17</sup> Talentua Antzinateko moneta-unitatea zen. Talentu batek 60 minaren balioa zuen. Prostituta baten ohiko prezioa 20 eta 30 mina ingurukoa izaten zen, zenbait kasutan 40 mina. Andraketariak batzuetan haren prezioa eskatzen du, beste batzuetan, aldiz, bikoitza. *Talentu handi* (*talentum magnum*) esandakoan Plautok talentu atikar bat adierazi nahi du, Greziako zenbait tokitan talentuak balio handiagoa (80 mina) baitzuen Atenasen baino.

<sup>18</sup> Karia Asia Txikiko antzinako eskualdea da; Halikarnaso zen hiriburua. Gaurko Turkiako hegomendebaldeko kostaldean zegoen, Rodas uhartearen iparrean.

<sup>19</sup> «... Venusek nirekin izango duela gosaria» esaldia, hala latinezko jatorrizkoan nola nire itzulepenean, bi modutan ulertu daiteke: Venusek eta Fedromok elkarrekin jango dutela gosaria edo, Palinurok ulertu duena, Venusek Fedromo jango duela gosaritan.

<sup>20</sup> Jatorrizko testuan *multibiba* ‘asko edaten duen emakumea’ eta *merobiba* ‘urik gabeko ardoa edaten duen emakumea’ hitz konposatu asmatuak azaltzen dira. Itzulpenean, eragin bera sorrarazteko asmoz, *edarizale* eta *ardosendozale* hitz asmatuak erabili ditut.

<sup>21</sup> *Leaena* izenaren eta *lagoena* hitzaren arteko hots-kidetasuna mantentzen saiatu naiz itzulpenean: Leena eta lehena.

FEDROMO.– Laburtuta, mozkor galanta. Atea ardoz bustitzen dudan momentuan 80  
bertan, usainagatik, bazakik hemen nagoela eta bat-batean zabaltzen dik.

PALINURO.– Eta beretzat da ardo pegar hau?

FEDROMO.– Hala duk, ados bahago.

PALINURO.– Nola egongo naiz ba ados, ala Herkules? Ardoa daraman hori lurrera  
erortzen ikustea gustatuko litzaidake. Nik uste nuen ardoa guretzat zela.

FEDROMO.– Isilduko al haiz? Emakumeak zerbait uzten badu, nahikoa izango diagu. 85

PALINURO.– Zein ibai duk hau, itsasoan ez kabitzeko?

FEDROMO.– Etorri nirekin, Palinuro; lagun nazak ateraino. Izan adeitsua nirekin.

PALINURO.– Ados.

FEDROMO.– (*Ate aurea ardoz zipriztindu*) Tori, edan, ate pozgarri horrek; mozkortu  
zaitez; izan onbera nirekin eta agertu nire alde.

PALINURO.– (*Ateari, Fedromo imitatu*) Nahi al duzu olibarik? haragi plater bat? edo 90  
kapartxo batzuk?

FEDROMO.– (*Ateari hau ere*) Esna ezazu zure zaindaria eta bidali hona niregana.

PALINURO.– Ardo gehiegi ari zara botatzen. Zoratu egin al zara?

FEDROMO.– Utzi nazak bakean. Ikusten? Ate pozgarrietan pozgarriena zabaltzen ari  
duk. Egin al du haren erroak zaratarik? Xarmagarria da.

PALINURO.– Zergatik ez duzu musukatzen?

FEDROMO.– Isilik. Ezkuta dezagun argia eta isildu gaitezen. 95

PALINURO.– Ados.

## BIGARREN AGERRALDIA

### LEENA, PALINURO, FEDROMO

LEENA.– (*Kapadoziarren etxetik irten, sudurrarekin usaintze-keinuak eginez*) Ardo  
urtetsu baten usaina iritsi dun nire sudurrera. Beraganako dudan maitasunak honantz  
erakartzen nain, desiraz beteta, iluntasunean zehar. Edonon egonda ere, nigandik gertu  
zagon. Gora! Bazaukanat! Agur, maitea, Liberren xarma<sup>23</sup>! Zaharra zara, urtetsua zara:  
benetan desio zaitut zahar honek! Lurrin guztien usaina kiratsa da zurearekin alderatuta. 100

---

<sup>22</sup> Kios Egeo itsasoko greziar uhartea da. Antzinako Grezian Kiosko ardo beltza onenetakoa eta garestienetakoa zen; Antzinako Erroman luxuaren adierazle bide zen.

<sup>23</sup> *Liber*, jatorriz, jainko italikoa zen, erromatarren artean Bakorekin, mahatsaren, ardoaren eta zoramenaren jainkoarekin, asimilatua (Dioniso da greziar mitologiako baliokidea).

Niretzat mirra zara zu, kanela zara, arrosa zara, azafraia zara eta erramu-kanela, ailorbe ukendua zara. Zu isurtzen zaituzten tokian, bertan nahi nuke izan lurperatua. Baina, 105  
oraingo zure usainak soilik nire sudurra asebate duenez, emaiozu nire eztarriari ere plazerra. Usaina, zu ez zara nahikoa. Non dago bera? Bera da desio dudana; zure likidoa, pegar horrena, hori da nire barnera isuri nahi dudana, dena batera. (*Fedromo urrundu pegarrarekin*) Baina, hemendik joan dun, hemendik jarraituko dinat.

FEDROMO.– (*Palinuroi*) Atso hau egarri duk. 110

PALINURO.– Baina ez asko, ezta?

FEDROMO.– Bai, neurrizko emakumea duk: nahikoa dik pegar batekin.

PALINURO.– Diozunaren arabera, aurtengo mahats-bilketa ere ez da atso honentzat nahikoa izango, ala Polux. Ehiza-txakurra izan behar zuen. Hau usaimen fina duena!

LEENA.– Mesedez, norena da urrunean entzuten dudana ahotsa?

FEDROMO.– (*Palinuroi*) Uste diat iritsi dela atsoari hitz egiteko ordua. Hurbildu egingo nauk. (*Atsoari*) Itzul zaitez eta begiratu hona, Leena.

LEENA.– Nork agintzen dit?

FEDROMO.– Ardoaren jaunak, Liber maiteak. Horren espektoratazailerik, horren lehor eta 115  
erdi lo ikusi zaitudanez, edaria ekarri dizut eta zure egarria baretzera natorren.

LEENA.– Urrun al zaude?

FEDROMO.– Begiratu argi honi.

LEENA.– Orduan, bizkortu pausua niregana, arren.

FEDROMO.– (*Hurbildu*) Gabon!

LEENA.– Nola izango da gau ona, egarritz hiltzen ari banaiz?

FEDROMO.– Oraintxe edango duzu.

LEENA.– Badirudi luzerako doala hori.

FEDROMO.– (*Pegarra eman*) Hemen, hartu, andre maitagarri horrek. 120

LEENA.– Agur, gizon guztien artean kuttunena!

PALINURO.– (*Atsoari*) Tira, isuri hau azkar zulara; garbitu ezazu azkar estolda.

FEDROMO.– Isildu. Ez diat nahi atsoari ezer gaizki esaterik.

PALINURO.– Gaizki esan ez, gaizki egingo diot.

LEENA.– (*Venusen aldarera itzuli*) Venus, daukadan apur honetatik, pixka-pixka bat eskainiko dizut, gogoz kontra bada ere. Maiteminduek edaten eta beren maitasunagatik topa egiten dutenean pixka bat eskaintzen dizute zuri, baina halako ondarrerik ez zait sarri egokitzen niri. 125

PALINURO.– Begira nola irensten duen nahasterik gabeko ardoa, nola egiten duen zurrut!

FEDROMO.– Galduta nagok, ala Herkules! Ez zakiat nola hasi emakume honekin hitz egiten.

PALINURO.– Esaiozu hori, oraintxe esan didazuna.

FEDROMO.– Eta zer duk hori?

130

PALINURO.– Esaiozu galduta zaudela.

FEDROMO.– Jainkoek nahasi zaitzatela!

PALINURO.– Esaiozu berari.

LEENA.– (*Asebetetze-hasperena*) Ah!

PALINURO.– Zer gertatzen da? Gustuko dun?

LEENA.– Bai, gustuko diat.

PALINURO.– Ba, niri ere gustatuko litzaidake... eztenarekin zu zulatzea.

FEDROMO.– Isildu hadi. Debekatu egiten diat...

PALINURO.– Isilduko naiz. (*Edateko makurtuta dagoen atsoa seinalatu*) Begira nola edaten duen ostadarrak<sup>24</sup>. Ala Herkules, seguru gaur euria egingo duela.

FEDROMO.– (*Palinurori*) Esango diot?

PALINURO.– Zer esango diozu?

FEDROMO.– Galduta nagoela.

PALINURO.– Ea, esaiozu.

FEDROMO.– Entzun, atsoa. Hau jakin dezazun nahi dut: galduta nago, gaixo hau!

LEENA.– Ba ni erabat ondo, ala Polux. Baina, zergatik diozu galduta zaudela?

135

FEDROMO.– Nire maitea ez dagoelako nire ondoan.

LEENA.– Ene Fedromo gaixoa, ez egin negarrik, mesedez. Zu ahalegindu zaitez nik egarririk ez izaten eta nik zure maitea ekarriko dizut hona.

FEDROMO.– Eta nik zin egiten dizut, zure hitza betetzen baduzu, estatua bat eraikiko dudala, baina ez urrezkoa, ardoz egina baizik, zure eztarriari eskainia. (*Atsoa etxera sartu; Palinurori*) Egongo al da ni bezain zoriontsu den inor nire maitea nire ondora etortzen bada, Palinuro?

140

PALINURO.– Ez dago zorigaiztokoagorik dirurik ez duen gizon maitemindua baino, ala Polux.

FEDROMO.– Baina hori ez duk nire kasua; ziur nagok nire parasittoa gaur iritsiko dela

---

<sup>24</sup> Leenari, edateko aurrerantz makurtuta dagoela, ostadarraren itxura hartzen dio Palinurok. Garai hartan pentsatzen zen ostadarrak itsasoko eta ibaietako ura edaten zuela.

diruarekin.

PALINURO.– Arriskutsua da existitzen ez denaren zain egotea!

FEDROMO.– Atera hurbildu eta zerbait kantatuko banio? 145

PALINURO.– Nahi baduzu, nik ez dizut ezetzik ez baietzik esango, ohiturak eta izaera oso aldatuta dituzula ikusten dut eta, nagusi.

FEDROMO.– (*Ateari*) Morroiloak, oi ene morroiloak! Atseginez agurtzen zaituztet, maite zaituztet, gura zaituztet, desio zaituztet eta eskatzen dizuet, egin nire maitasunari men, morroilo maiteak. Bilakatu zaitezte dantzari barbaro<sup>25</sup> niretzat, egin salto, mesedez, eta utzizue irteten zorigaiztoko maitale honen odola edaten duen emakumeari. Begira, morroilo madarikatuak lotan daude nire erreguak entzun ere egin gabe. Ikusi dut ez zaizuela inporta nire eskaria... (*Palinurori*) Baina, isildu hadi, isildu. 150 155

PALINURO.– Isilik nago eta, ala Herkules.

FEDROMO.– Zarata bat entzuten diat. Azkenik morroiloek entzun ditek nire nahia, ala Polux.

## HIRUGARREN AGERRALDIA

### LEENA, PLANESIA, PALINURO, FEDROMO

LEENA.– (*Kapadoziarren etxetik Planesiarekin irten*) Irten kontu handiz; saiatu zaitez atearekin zaratarik ez egiten eta erroek ez dezaten kirrinkatu, ene Planesia, gure jabeak ez dezan jakin zertan ari garen hemen. Itxaron, ur tanta bat botako diet. 160

PALINURO.– (*Fedromori*) Ikusten al duzu nola ari den mediku plantak egiten atso hau? Berak nahasterik gabeko ardoa edaten du, baina ateari ura ematen dio edateko.

PLANESIA.– (*Fedromoren bila*) Non zaude, Venusen auzitegira<sup>26</sup> zitatatu nauzun hori? Hemen agertu naiz ni, eta eskatzen dizut zu ere ager zaitezen.

FEDROMO.– Hemen nago; hemen egongo ez banintz, ez nuke ezetsiko nire aurkako zigorra, laztana.

PLANESIA.– Maitea, onartezina da nire maitalea nigandik urrun egotea. 165

FEDROMO.– Palinuro, Palinuro!

PALINURO.– Esadazu, zertarako deitu diozu Palinurori?

---

<sup>25</sup> Barbaro hitza arrotzak izendatzeko erabiltzen zuten greziarrek eta erromatarrek.

<sup>26</sup> Latinezko testuan, hizkera legalaren parodia gisara, *vadimonium* hitza azaltzen da, hau da, akusatua auzitegira azalduko den bermea.

FEDROMO.– Neska hau maitagarria duk.

PALINURO.– Bai, oso maitagarria.

FEDROMO.– Jainko bat nauk.

PALINURO.– Balio gutxiko gizon bat zarela esango nuke nik.

FEDROMO.– Ikusi al duk edo ikusiko al duk inoiz jainkoen antzekoagoa den ezer?

PALINURO.– Zure osasuna ez dela oso ona ikusten dut, eta benetan sentitzen dut.

FEDROMO.– Ez haiz nirekin adeitsua. Isildu hadi.

PALINURO.– Bere maitalea ikustean atsegin hartzen ez duenak, ahal duen bitartean 170  
behintzat, bere burua torturatzen dik.

FEDROMO.– (*Planesiari*) Arrazoi du niri errieta egiten. Inoiz ez dut ezer hau beste  
desiratu.

PLANESIA.– Orduan heldu nazazu, besarkatu nazazu.

FEDROMO.– Hau da bizitzeko daukadan arrazoi bakarra. Zure nagusiak nigandik urrun  
mantentzen zaituenez, isilean bakarrik ikus zaitzaket.

PLANESIA.– Zugandik urrun mantentzen nauela? Ezin nau zugandik urrun mantendu  
eta ez du hala egingo, soilik heriotzak bananduko du nire bihotza zugandik.

PALINURO.– Ezin diat nire nagusiaren jarrera gaitzestea saihestu. Ondo duk pixka bat 175  
maitatzea, zentzuz jokatuta; zoratzerraino maiteminduta egotea ez duk ona. Baina erabat  
zoratzerraino maiteminduta egotea... horrela bizi duk nire nagusia.

FEDROMO.– Izan ditzatela erregeek beren erreinuak, aberatsek beren aberastasunak;  
izan ditzatela beren ohoreak, balentriak, borrokak eta batailak. Nire maitasunaren  
inbidiarik ez duen bitartean, izan dezala gizon bakoitzak berea! 180

PALINURO.– (*Fedromori*) Venusi gau osoan beila egitea promes egin diozu? Ez da  
asko geratzen egunsentirako, ala Polux.

FEDROMO.– Isildu hadi.

PALINURO.– Zergatik isildu behar naiz? Tira, joan zaitez etxera eta egizu lo.

FEDROMO.– Lotan nagok jada. Ez ibili oihuka.

PALINURO.– Zu esna zaude.

FEDROMO.– Nire erara nago lotan. Hauxe da nire ametsa.

PALINURO.– (*Planesiari*) Aizu, andre, ez dago ongi zuri kalterik egin ez dizun 185  
gizonari kalte egitea.

PLANESIA.– Jaten zaudela nagusiak janaria ahotik kenduko balizu... orduan bai  
haserretuko zinatekeela!

PALINURO.– Ez zagok ezer egiterik. Biak zaudek elkarrekin erabat maiteminduta, biak zaudek zoratuta. Begira zer nolako ahaleginak egiten ari diren. Besarkatu eta besarkatu, eta ez duk nahikoa berentzat. (*Maitaleen tartean sartu*) Bananduko al zarete behingoz?

PLANESIA.– Zoriontasuna ez dun betiko. Hain gintunan zorionsu... eta gogaikarri hau 190  
batu zaigun.

PALINURO.– Zer diozu, lotsagabe horrek? Hontz-begi horiekin, niri gogaikarri deitzera ausartu zara, txotxongilo mozkorkume ezdeus hori?

FEDROMO.– Eta hi nire Venus iraintzera ausartu haiz? Hi moduko esklabo batek, zigorretara ohituak, nire aurrean hitz egiteko ausardia dik? Garesti ordainduko duk, ala Herkules. (*Jo*) Hau hire irainengatik, isilik egoten ikas dezaan. 195

PALINURO.– (*Planesiari*) Lagundu, Venus gau-beiliaria!

FEDROMO.– Jarraitu egiten duk, alferrontzi halakoak?

PLANESIA.– (*Fedromori*) Mesedez, ez jo harri hori, eskuan min hartuko duzu eta.

PALINURO.– Egiten ari zarena krimen lotsagarria da, benetako gaiztakeria, Fedromo. Aholku onak ematen dizkizun gizona zigortzen duzu eta, aldiz, neska hau maite duzu, 200  
ezdeus hutsa. Nolatan erabiltzen duzu burua hain modu burugabea?

FEDROMO.– Emadak burua zentzuz erabiltzen duen maitemindu bat eta bere pisua beste urre emango diat.

PALINURO.– Eman burua zentzuz erabiltzen duen nagusi bat eta bere pisua beste orikalko<sup>27</sup> emango dizut.

PLANESIA.– Agur, maitea! Atearen erroak kirrinka entzuten ari naiz; zaindaria tenplua irekitzen ari da. Betirako mantendu beharko al dugu gure maitasuna ezkutuan? 205

FEDROMO.– Inolaz ere ez. Duela hiru egun bidali nuen nire parasittoa Kariara diru bila. Gaur itzuliko da.

PLANESIA.– Ondo pentsatzen dituzu gauzak..

FEDROMO.– Ez dizut etxe horretan bi egun baino gehiago egoten utziko, Venusengatik zin egiten dizut. Merezi duzun askatasuna emango dizut.

PLANESIA.– Saiatu zait ez ahazten. Joan aurretik, hartu nire musu bat. 210

FEDROMO.– Erreinu bat eskainiko balidate, ez nuke, ala Herkules, zure orde zure inola ere onartuko. (*Musu eman*) Noiz ikusiko zaitut berriz?

PLANESIA.– Erantzun zeuk galdera horri, lortu zeuk nire askatasuna. Maite banauzu,

<sup>27</sup> Orikalkoa (*orichalcum*) metal aleazio bat da. Bere osaketa ez da oso ondo ezagutzen baina badirudi oinarrian kobrea eta zinka dituela. Bestalde, grezieraz zein latinez, sarritan urrea bera baino baliotsuagoa den metal bat izendatzeko erabiltzen da.



eros nazazu. Ez ezazu soilik nahi duzuna eskatu, egin eskaintza handiena ni erosteko.

Agur! (*Etxera sartu*)

FEDROMO.– Utzi naik jada? Hilzori gozoan nagok, Palinuro!

PALINURO.– Ez, neu nago hilzorian, eta ez kolpeengatik soilik, baita loguragatik ere! 215

FEDROMO.– Jarrai nazazue. (*Fedromoren etxean sartu*)

## BIGARREN EKITALDIA

### LEHENENGO AGERRALDIA

#### KAPADOZIAR, PALINURO

KAPADOZIAR.– (*Eskulapioaren santutegitik irten*) Hartu diat erabakia: banoak santutegitik. Eskulapiori ez natzaiok inporta eta ez dik nahi ni sendatzerik. Nire osasuna eskasten zoak, nire sufrimendua, aldiz, hazten. Ibiltzen hasten naizen bakoitzean bareak 220 gerriko baten gisara estutzen naik. Sabelean bikiak ditudala zirudik. Gehien beldurtzen nauena bitan banatzea duk, gaixo hau.

PALINURO.– (*Etxetik irten eta Fedromori hitz egin, etxe barrura begira*) Ongi egingo zenuke niri entzungo bazenit, Fedromo, eta atsekabe hau burutik kendu. Beldur zara zure parasittoa ez delako Kariatik itzuli. Baina nik uste dut dirua ekarriko duela; ekarriko 225 ez balu ez legoke burdinazko katerik hona, bere askan jatera, bueltatzea eragotziko liokeenik.

KAPADOZIAR.– Nor duk hitz egiten ari den gizona?

PALINURO.– Norena duk entzuten dudan ahotsa?

KAPADOZIAR.– Ez al duk hau Palinuro, Fedromoren esklaboa? 230

PALINURO.– Nor duk gizon sabel handi hau, belar koloreko begi berde horiekin? Bere tankera ezaguna egiten zaidak, baina kolorea ez. Bazekiat nor den! Kapadoziar duk, andraketaria. Beregana joango nauk.

KAPADOZIAR.– Agur, Palinuro!

PALINURO.– Agur, alproja guztietan handiena! Zer moduz? 235

KAPADOZIAR.– Ahal dudan moduan.

PALINURO.– Merezi duzun moduan, beraz. Baina, zer gertatzen zaizu?

KAPADOZIAR.– Bareak ito egiten naik, giltzurrunetan mina zaukaat, birrikak atera behar zaizkidak eta gibela oinazetan zegok; bihotza guztiz suntsituta zaukaat, eta hesteetan sekulako mina.

- PALINURO.– Orduan gibelego gaixotasunen bat daukazu.
- KAPADOZIAR.– Barea gurutziltzatu didatela zirudik.
- PALINURO.– Ibili, horixe da onena barearentzat.
- KAPADOZIAR.– Erraza duk zoritxarreko gizon bati barre egitea. 240
- PALINURO.– Bestela eutsi beste egun batzuetan, hesteak usteltzen zaizkizun unera arte, gatzetan jartzeko garaia da eta. Hori egiten baduzu, zure hesteek zeuk baino gehiago balioko dute.
- KAPADOZIAR.– Ez adarrik jo, mesedez, eta erantzun galdera honi: gaur gauean izan 245  
dudan ametsa kontatuko banik, interpretatuko al hidake?
- PALINURO.– Bai horixe! Neu naiz igarkizunetan trebeena! Amets interpretatzaileak ere nigana etortzen dira aholku eske. Emandako erantzuna edozein izanda ere, horixe da 250  
jarraitzen duten aholkua.

## BIGARREN AGERRALDIA

### SUKALDARIA, PALINURO, KAPADOZIAR, FEDROMO

- SUKALDARIA.– Zer egiten duk hor geldirik, Palinuro? Zergatik ez dizkidak ateratzen parasittoa heltzen denean bazkaria prest izateko behar ditudan gauzak?
- PALINURO.– Itxaron pixka bat, mesedez; amets bat interpretatu behar diat honentzat.
- SUKALDARIA.– Baina zerbait amestu ondoren hik niri galdetzen didak eta!
- PALINURO.– Bai, aitortzen diat. 255
- SUKALDARIA.– Ea, atera gauzak jaki-tokitik.
- PALINURO.– (*Kapadoziarri*) Tira, zuk, bitartean, kontaiozu honi zure ametsa. Ni baino askoz ere hobea den baten kargu uzten zaitut. Dakidan guztia berak irakatsi dit.
- KAPADOZIAR.– Nahikoa izango duk entzuten badit.
- PALINURO.– Entzungo dizu. (*Palinuro Fedromoren etxera gerturatu, sartu gabe*)
- KAPADOZIAR.– (*Palinuro seinalatu*) Gutxi zaudek hau modukoak, beren maisua obeditzen dutenak. (*Sukaldariari*) Orduan, entzun iezadak.
- SUKALDARIA.– Nor zaren ez dakidan arren, entzungo dizut.
- KAPADOZIAR.– Gaur gauean, ametsetan, Eskulapio ikusi dudala iruditu zaidak. Oso 260  
urrun zegoan nigandik. Ematen zian ez zuela nigana hurbildu nahi eta ez niola axolarik.
- SUKALDARIA.– Argi dago gainontzeko Jainkoek ere gauza bera egingo dutela. Guztiz ados egoten dira elkarrekin. Ez da harritzekoa hobera ez egitea. Hobe zenukeen 265

Jupiterren tenpluan lo egin bazenu, promes egin diozun bakoitzean lagundu dizunaren tenpluan.

KAPADOZIAR.– Promes faltsuak egin dizkion orok bere tenpluan lo egin nahiko balu, ez litzateke nahikoa toki egongo Kapitolioan<sup>28</sup>.

SUKALDARIA.– Entzun esango dizudana: Eskulapiorekiko bakea lortu behar duzu, 270 iragarri zaizun ezbeharrak gerta ez dakizun.

KAPADOZIAR.– Eskerrik asko! Erregu egitera noak. (*Santutegian sartu*)

SUKALDARIA.– Zure kalterako izan dadila! (*Fedromoren etxean sartu*)

PALINURO.– (*Etzetik irten*) Ene Jainko hilezkorrak! Nor ikusten diat? Nor duk gizon hau? Ez al duk Kariara bidalitako parasittoa? Fedromo, irten zaitez, irten, irten azkar! 275

FEDROMO.– (*Etzetik irten*) Zer dela eta ari haiz oihuka?

PALINURO.– Zure parasittoa dator korrika, hor dator, plazaren amaieran. Entzun dezagun hemendik zer dioen.

FEDROMO.– Oso ondo, ados.

## HIRUGARREN AGERRALDIA

### GURGURIO, FEDROMO, PALINURO

GURGURIO.– Utzi bidea, ezagun eta ezezagunok, nire eginbeharra betetzera nator eta. 280  
Joan zaitezte guztiok, egin ihes, aldendu nire bidetik, korrika noala inor ez dezadan jo buruarekin, ukondoarekin, bularrarekin edota belaunarekin. Azkar bete behar dudak premiazko misio bat daukat betetzeko. Ez dago munduan inor hain aberatsik niri oztoporik jartzeko balorerik duenik: ez estrategarik, ez tiranorik, ez merkatu- 285  
ikuskatzailearik, ez eskualdeko epailerik, ez herriko arduradunik, ezta pertsonaia loriatsurik; nire aurrean denak eroriko dira eta galtzadaren kontra jo eta espaloitik hegan irtengo dira. Eta kapadun greziar horiei, burua estalita daramaten horiei, liburuz gainezka eta soineko azpian otarrekin doazen horiei, bide erdian gelditu eta beren artean 290  
etengabe hitz egiten duten horiei, bidea moztu eta aurrera egitea galarazten duten esklabo iheslari madarikatu horiei, beren esaerekin beren burua nabarmendu nahian ibiltzen direnei, tabernan etengabe edaten dutenei eta zerbait lapurtzen dutenean beren burutxo estali horiekin ardo bero bat hartzen duten horiei, mozkortuta eta aurpegi 295

---

<sup>28</sup> Jupiter erromatarren jainko gorena zen. Zeruaren jainkoa zenez, tximistaren eta trumoiaren jabe zela uste zuten antzinako erromatarrek eta Kapitolio tenplua eraiki zuten haren ohoretan.

larriarekin abiatzen diren horiei, horiei, haiekin tope eginez gero, morokil<sup>29</sup> puzker bana botako diet. Eta hiriko lepotenteen esklabo horiek, pilotarekin jolasten dutenak, pilota jaurti zein jasotzen dutenak, guztiak zapaldu eta lurperatuko ditut. Beraz, zoritxar bat saihestu nahi badute, gera daitezela beren etxeetan.

FEDROMO.– Utziz gero, honek ondo aginduko luke. Bizi ditugun garaiak kontuan hartuta eta gaurko esklaboak nolakoak diren ikusita, ez dago hauek zentzarazterik. 300

GURGURIO.– Esango al dit norbaitek non dagoen Fedromo, ene jeinu babeslea?

PALINURO.– (*Fedromori*) Zure bila ari da.

FEDROMO.– (*Palinurori*) Hurbilduko gaituk? (*Gurguriori*) Aizak, Gurgurio, etorri hadi hona!

GURGURIO.– Nork deitzen nau? Nork esan du nire izena?

FEDROMO.– Hi ikustea desio duan batek.

GURGURIO.– Ez nik zu ikustea desio dudan beste. 305

FEDROMO.– Ene salbazioa, halako batean, Gurgurio, agur!

GURGURIO.– Agur!

FEDROMO.– Pozten nauk hi osasuntsu ikusteaz. Eman esku hori. Non zagok nire esperantza? Esan, mesedez.

GURGURIO.– Esan zeuk, mesedez, non dago nirea? (*Gurguriok konortea galtzearen itxurak egin*)

FEDROMO.– Zer gertatzen zaik?

GURGURIO.– Begiak lausotzen ari zaizkit, belaunak gosez tolesten zaizkit.

FEDROMO.– Nekatuta hagoelako izango da, ala Herkules. 310

GURGURIO.– Eutsi nazazu, eutsi, mesedez!

FEDROMO.– Ikusten al duk zein zurbil dagoen? (*Esklaboei*) Agudo! Ekarri aulki bat esertzeko eta ur pitxer bat. Azkar, azkar!

GURGURIO.– Zorabiatuta nago.

PALINURO.– Nahi al duk urik?

GURGURIO.– Haragi zatirik badauka, emadak, mesedez, irentsi dezadan.

PALINURO.– Hoa pikutara!

GURGURIO.– Mesedez, aise egizue nire bizi.

PALINURO.– Ados. (*Haizea eman*) 315

GURGURIO.– Zer ari zarete egiten, mesedez?

---

<sup>29</sup> Morokilak, arto irinarekin egiten den ore lodiak, haize-mina eragiten zuen.

PALINURO.– Haize egiten.

GURGURIO.– Ez, nik ez diat nahi haizea egiterik.

FEDROMO.– Orduan, zer nahi duk?

GURGUIO.– Jan nahi dut, hemen aise bizitzeko.

PALINURO.– Jupiterrek eta jainko guztiek nahas hazatela!

GURGURIO.– Hilda nago! Ez dut ia ikusten; haginak makarrez<sup>30</sup> beteta ditut; eztarria bekarrekin daukat goseagatik; sabela ahulduta dakart jan faltagatik.

FEDROMO.– Berehalaxe jango duk zerbait. 320

GURGURIO.– Ez dut «zerbait» nahi, ala Herkules. Nahiago dut gauza zehatz bat.

FEDROMO.– Zer soberakin daukagun baheki!

GURGURIO.– Non dauden jakin nahi dut, nire haginek haiekin elkartzeko beharra dute eta.

FEDROMO.– Urdaiazpikoa dago, hirugiharra, txerri errapeak, saiheskiak, gibelerraiak.

GURGURIO.– Hori guztia dago, benetan? Jaki-tokian esan nahiko duzu?

FEDROMO.– Ez, plateretan. Dena prest zagok hiretzat, iritsiko hintzela jakin 325 genuenetik.

GURGURIO.– Ez adarrik jo niri!

FEDROMO.– Egia duk, egia denez, maite dudan emakumeak ni maite nauela. Baina, egin nian enkarguari buruz oraindik ez zakiat ezer.

GURGURIO.– Ez dizut ezer ekarri.

FEDROMO.– Akabatu egin nauk!

GURGURIO.– Baina aurkituko dut zerbait, nirekin lan egiten baduzue. Zure aginduei jarraituz, bidea hartu eta Kariara iritsi nintzen. Zure laguna ikusi eta dirua emateko 330 eskatu nion. Ikusi bazenu zure gogoa betetzeko zuen nahia! Ez zintuen bakarrik utzi nahi, zure laguna izan nahi zuen eta, noski, lagundu. Hitz gutxirekin eta zintzotasun guztiz esan zidan zure egoera berean zegoela, goian zerua eta behean lurra.

FEDROMO.– Hire hitzek kalte egiten zidatek! 335

GURGURIO.– Hobeto esanda, lagundu egiten dizute, lagundu nahi zaitut eta. Erantzun hori jaso eta gero, hura agurtu eta forora joan nintzen, goibel, bidaia alferrik egin nuelako. Kasualitatez soldadu bat ikusi nuen. Beregana hurbildu eta agurtu egin nuen. «Agur!», esan zidan. Eskua eman, alde batera eraman eta Karian zertan ari nintzen

---

<sup>30</sup> Makarra betazal ertzetan pilatzen den malko lehortua da. Gurguriok *haginak makarrez beteta* dituela esaten duenean, Plautok, gorputz atal bat beste batekin nahasiz, jolas antzeko bat egiten du egoera oso txarrean dagoela adierazteko.

galdetu zidan. Aisia bidaia bat zela esan nion. Orduan, ea Epidauron Likon izeneko 340  
bankaririk ezagutzen ote nuen galdetu zidan. Baietz esan nion. «Eta Kapadoziar  
andraketaria?» Baietz erantzun nion, sarri egon naizela bere etxean. «Baina zer nahi  
duzu beregandik?» «Neska bat erosi nion hogeita hamar minaren truke, baita arropak eta  
bitxiak ere, hamar mina gehiagoren truke.» «Eman al zenion dirua?», galdetu nion. «Ez, 345  
aipatu berri dizudan Likon horren etxean daukat. Norbaitek nire eraztunarekin  
zigilatutako eskutitz bat ematen dionean, andraketariaren etxetik neska gaztea ateratzeko  
agindu diot, bere arropa eta bitxiekin, eta hari emateko.» Hori kontatu eta gero, agur  
esan nion. Baina segituan deitu eta afaltzera gonbidatu ninduen. Ezinbesteko 350  
eginbeharra zen, eta ezin nion ezetz esan. «Joango al gara oraintxe mahaira?», esan  
zuen. Ideia ona iruditu zitzaidan. «Ez dago ondo eguna atzeratzea eta ez dago ondo  
gaua alferrik galtzea.» «Prest dago afaria eta afalduko dugunok ere hemen gaude.» Asko  
jan eta edan ostean, dadoak eskatu zituen eta joko batean jokatzeko erronka egin zidan. 355  
Nik nire kapa jokatu nuen; berak, aldiz, eraztuna<sup>31</sup>, eta Planesiari eskatu zion laguntza.

FEDROMO.– Nire maiteari?

GURGURIO.– Isildu zaitez momentu batez. «Lau putre» jaurti zituen berak<sup>32</sup>. Dadoak  
hartu eta Herkulesi laguntza eskatu nion, nire inude maiteari<sup>33</sup>. Dadoak jaurti eta  
erregearen jokaldia egin nuen. Orduan, edari eder bat eskaini nion. Hurrupa batez edan  
zuen, burua makurtu eta lo geratu zen. Eraztuna kendu nion eta nire hankak etzalekutik 360  
kendu nituen kontu handiz, soldadua konturatu ez zedin. Esklaboek nora nindoan  
galdetu zidaten. Erabat beteta zeudenak joaten ziren lekura nindoala erantzun nien. Atea  
ikusi nuenean, korrika irten nintzen bertatik eta ospa egin nuen.

FEDROMO.– Zoriondu egiten haut.

GURGURIO.– Itxaron pixka bat, zoriondu nazazu nahi duzuna lortzen dizudanean.  
Orain sar gaitezen barrura, gutuna idatzi eta zigilatzeraz. 365

FEDROMO.– Ni al nauk hori egitea galarazten diana?

GURGURIO.– Baina aurretik sar dezagun zerbait gorputzean: urdaiazpikoa, hirugiharra,  
gibelerraiak. Hauek urdailaren zutabeak dira. Ogia, haragi errea, edari eder bat edo

---

<sup>31</sup> Editore batzuek *anulum* ('eraztuna') idazten dute pasarte honetan, beste batzuek, aldiz, *amiculum* ('soingainekoa'). Nik eraztuna hautatu dut nire itzulpenerako, aurrerago eraztunak daukan garrantzia kontuan izanik, egokiagoa iruditzen zaidalako.

<sup>32</sup> Dadoek lau bateko erakusten zutenean *lau putreko* jaurtiketa deitzen zitzaion. Balio gutxiko jaurtiketa zen. *Erregearen jokaldia*, aldiz, balio handieneko jaurtiketa zen; dado bakoitzak zenbaki ezberdin bat erakusten zutenean gertatzen zen jokaldi hau.

<sup>33</sup> Bi azalpen aurkitu diezaiokegu Gurguriok Herkulesi *inude* deitzeari. Alde batetik, erromatar ohitura zaharra zen hamargarren benefizioa Herkulesi sagaratzea, eta eskaintza honetaz baliatzen ziren parasitoak sabela betetzeko. Beste alde batetik, Herkulesek jatun ospea izatea, besterik gabe.

lapiko erraldoi bat behar dira, erabaki egokiak hartzeko. Zuk idatzi eta zigilatu gutuna, honek (*Palinuro seinalatu*) jan-edana mahairatuko du eta nik jan egingo dut. Zer idatzi 370 behar duzun esango dizut. Jarrai nazazu barrura.

FEDROMO.– Banoa. (*Fedromoren etxean sartu*)

## HIRUGARREN EKITALDIA

### LEHENENGO AGERRALDIA

#### LIKON, GURGURIO, KAPADOZIAR

LIKON.– Denek uste ditek aberatsa naizela. Kontuak atera berri ditiat zenbat diru daukadan eta zenbat zor dudan jakiteko. Nire hartzekodunei ordaintzen ez bazieat, aberatsa nauk; ordaintzen bazieat, aldiz, zorduna. Baina, ondo pentsatuta, gehiegi 375 erasotzen bazidatek pretorearen arartekotzara<sup>34</sup> joko diat, ala Herkules. Bankari gehienek elkarri dirua eskatzeko ohitura ditek, inori ere itzuli gabe, eta, dirua eskatzerakoan norbaitek zarata gehiegi ateraz gero, ukabilkada bidez konpontzen ditek 380 kontua. Dirua azkar lortu duen gizona azkar izango duk gose, azkar gorde ez badik behintzat. Nik mutil esklabo bat erosi nahi diat, baina oraingo, nahiago diat norbaitek bat uztea, diru pixka bat aurrezteko.

GURGURIO.– (*Fedromoren etxetik irten, soldadu jantzita eta begia txaplata batez estalita; Fedromorekin hitz egin, etxe barrura begira*) Sabela beteta daukadanean ez dut gomendiorik behar. Guztia gogoratzen dut, guztia dakit. Kontu honi neuk aurkituko diot 385 irtenbidea. Ez esan beste ezer. (*Bere kabuz*) Hor barruan betealdi galanta egin diat, ala Polux, eta, hala ere, sabelean tartetxo bat utzi zieat soberakinen soberakinei. (*Likon ikusi*) Baina nor duk burua estalirik duela Eskulapio agurtzen duen hau? Bikain! 390 Bilatzen nenbilen gizona duk eta! (*Berarekin doan esklabo bati*) Jarrai nazak. Ezagutzen ez dudan itxura egingo diat. (*Likoni*) Aizu! Zurekin hitz egin nahi dut.

LIKON.– Agur, begibakar!

GURGURIO.– Aizu, niri barrez ari al zara?

LIKON.– Kokliten<sup>35</sup> arrazakoa haizela uste diat, denak baitira begibakarrak.

---

<sup>34</sup> Pretorea, hierarkikoki, kontsularen azpitik zegoen lehen magistratu erromatarra zen, eta batez ere funtzio judiziala zuen

<sup>35</sup> Koklitateak, ziklopeen baliokide latindarrak, begibakarrak dira; euskal mitologiako Tartaloren kideak dira.

- GURGURIO.– Sizionen<sup>36</sup> jasotako katapultatiro bat izan da. 395
- LIKON.– Niri berdin zaidak hori edo hire buruan apurtutako lapiko baten errautsak izan diren.
- GURGURIO.– (*Bereizirik*) Uste diat igarlea dela, egia esan dik eta, horixe baituk inguruan gehien izaten dudan jaurtigai mota. (*Likoni*) Gazte, aberriaren alde borrokan 400 lortu dut aldean daramadan domina hau, eta arren eskatzen dizut ez gogaitzeko jendaurrean.
- LIKON.– Jendaurrean ezin bahaut gogaitu, egin al dezaket pribatuan?
- GURGURIO.– Ezin izango nauzu pribatuan gogaitu, nolana ere ez zaitut gogoko eta, ez jendaurrean ez pribatuan. Baina bilatzen ari naizen gizona non dagoen esaten 405 badidazu, nire esker on sendo eta bikaina lortuko duzu. Likon bankariaren bila nabil.
- LIKON.– Esan, zer dela eta ari haiz haren bila? Nongoa haiz?
- GURGURIO.– Esango dizut. Terapontigonon Platagidoro soldaduak bidali nau.
- LIKON.– Ezagutzen diat izen hori, ala Polux. Hura idazteko lau argizarizko oholtxo 410 osorik erabili behar izan ditiat eta. Baina, zertarako bilatzen duk Likon?
- GURGURIO.– Oholtxo hauek emateko ardura eman dit.
- LIKON.– Eta hi nor haiz?
- GURGURIO.– Bere liberto<sup>37</sup> bat, Sumanoa<sup>38</sup> deitua.
- LIKON.– Agur, Sumanoa! Baina, zergatik deitzen diate Sumanoa? Azaldu iezadak.
- GURGURIO.– Mozkortuta ere, erraz sumatzen dudalako non den anoa. Horregatik 415 deitzen naute Sumanoa.
- LIKON.– Orduan, hobe beste nonbaiten bilatzen baduk ostatua, nire etxean behintzat ez zagok Sumanoarentzat tokirik. Baina, bilatzen ari haizen pertsona, neu nauk.
- GURGURIO.– Orduan, esan, zeu al zara Likon bankaria? 420
- LIKON.– Bai, neu naiz.
- GURGURIO.– Terapontigonok osasuna opa dizu eta oholtxo hauek zuri emateko agindu dit.
- LIKON.– Niri?

<sup>36</sup> Sizion Antzinako Greziako hiria zen, Peloponesoren iparraldean kokatua, Korinto eta Akaiaren artean zegoena. Bertso-lerro hau erabili da antzezlan K.a. 196-194an datatzeko, hain zuzen urte horietan gertatu zelako Nabis espartarraren aurkako gerrako gertakari nagusietako bat.

<sup>37</sup> Libertoa askatasuna lortu duen esklabo-ohia da.

<sup>38</sup> Plautok *Summanus* idatzi zuen, gaueko tximistargien Jainkoa. Baina, kasu honetan, etimologikoki gaizki dagoen eratorpen batean oinarritzen da izena, *summanare*, hau da, 'pixa gainean egin'. Jatorrizko testuko hitz jokoa nolabait biltzeko asmoz, itzulpenarako *Sumanoa* izena hautatu dut, euskarazko *sumanoa* (*sumatu anoa* 'sumatu janaria') parasitoarentzat goititzen egokia delakoan.



GURGURIO.– Bai, hartu. Erreparatu zigiluari. Ezagutzen al duzu?

LIKON.– Nola ez diat ba ezagutuko? Ezkutuz armatutako gizon bat bere ezpataz elefante bat erdibitzen.

GURGURIO.– Hauetan idatzita dagoena egin dezazun eskatzeko ere agindu zidan, bere 425  
esker ona lortu nahi baduzu behintzat.

LIKON.– Kendu, utzidak idatzita dagoena irakurtzen.

GURGURIO.– Ados, nahi duzuna, bila etorri naizena ematen badidazu behintzat.

LIKON.– (*Gutuna irakurri*) «Terapontigono soldaduak osasuna opa dio Likoni, bere 430  
Epidauroko ostalariari.»

GURGURIO.– (*Bereizirik*) Hau nirea duk jada, amua irentsi dik.

LIKON.– «Arren eskatzen dizut oholtxo hauek ematen dizkizunari emateko hiri horretan erosi nuen neska, zure aurrean eta zure bitartez eginiko tratua arabera erositakoa; baita bitxiak eta arropa ere. Badakizu zer den adostutakoa: eman dirua andraketariari eta 435  
neska gaztea nire mezulariari.» (*Gurguriori*) Baina, non zagok bera? Zergatik ez duk etorri?

GURGURIO.– Esango dizut: duela hiru egun inguru iritsi ginen Kariara Indiatik; orain urrezko estatua bat eraikitzeke eskatu nahi du bertan, filipoak<sup>39</sup> egiteko erabiltzen den 440  
urrez<sup>40</sup> egina, zazpi oineko altuerakoa, bere balentriak oroitzeko.

LIKON.– Zer dela eta?

GURGURIO.– Esango dizut: hogeit hamar egun baino gutxiagotan persiarrak, paflagoniarrak<sup>41</sup>, sinopearrak, arabiarrak, kariarrak, kretarrak, siriarrak, Rodas eta Lizia, jantarrak eta edandarrak, Zentaurondo, Bularbakarraga, Libiako kostalde osoa, Klasia eta 445  
Ardanigerieta osoa menderatu ditu, hau da, mundu osoko herri erdiak.

LIKON.– Ai ene!

GURGURIO.– Zerk harritzen zaitu?

LIKON.– Ba horiek guztiak oiloak bezala kaiola batean sartuta egongo balira, urtebete 450

---

<sup>39</sup> *Filipoa* Filipino II.a erregeak sortutako urrezko txanpona zen.

<sup>40</sup> Balio handiko urrea, 24 kilatekoa esango genuke.

<sup>41</sup> Paflagonia gaur egungo Turkia iparraldean zegoen Anatoliako erdi-iparraldeko antzinako lurralde bat zen. Sinope Itsaso Beltzean dagoen hiri bat da. Karia Turkia hegoaldeko eskualdea da, Liziaren ondoan. Rodas greziako uhartea da. *Peredia* eta *Peribesia* asmatuak hitzak dira, janari eta edariarekin eginiko hitz-jokoan; itzulpenean *jantarrak* eta *edantarrak* hitz asmatuak erabili ditut. *Centaumachia* eta *Unomammia* ere asmatuak hitzak dira, zentauroen ('erdi zaldi, erdi gizon') eta Amazonen ('eskuineko bularra mozten zuten emakume heroiak') arteko borroka adierazteko hitz-jokotzat asmatuak; itzulpenean *Zentaurondo* eta *Bularbakarraga* izen asmatuak erabili ditut. Interpretazio honetan *Classia* hitzaren zentzua ez dago argi; batzuek 'flota' terminoaren zentzua eman diote (*classis*). *Conterebromnia* ere asmatutako toponimoa da, 'higatu' eta Bromius (ardoaren jainkoaren beste izen bat) hitzak biltzen dituen; itzulpenean *Ardanigerieta* hitz asmatua erabili dut.

ez litzateke nahikoa izango guztiak inguratzeko. Esaten dituan txorakeriak entzunda, ziur nagok berak bidali hauela, ala Herkules.

GURGURIO.– Ba, nahi izanez gero, jarrai dezaket.

LIKON.– Ez, ez zaidak interesatzen. Hator nirekin: argitzera etorri haizen kontu horri irtenbidea aurkituko zioat. (*Kapadoziar santutegitik irten*) Hor zagok bilatzen dugun gizona. (*Kapadoziarri*) Agur, andraketari! 455

KAPADOZIAR.– Jainkoak zure aldeko izan daitezela!

LIKON.– Ba al dakizu zer dela eta natorren zu ikustera?

KAPADOZIAR.– Zeuk esango didazu zer nahi duzun.

LIKON.– Dirua jaso eta (*Gurguriori seinalatu*) neskatzari berarekin bidaltzea nahi dut.

KAPADOZIAR.– Baina, egin nuen zina, zer?

LIKON.– Zuk dirua jasotzen baduzu, zuri zer axola dizu ba? 460

KAPADOZIAR.– Aholku on bat ematea laguntzea da. Zatoz nirekin.

GURGURIO.– Andraketari, ez eduki ni zuri itxaroten. (*Kapadoziarren etxean sartu*)

## LAUGARREN EKITALDIA

## LEHENENGO AGERRALDIA

## KOREGOA

A zer nolako zortea izan duen Fedromok horrelako komediantean, ala Polux! Ez zakiat zer esan beharko nukeen, iruzurrontzia<sup>42</sup> dela ala iruzurgilea dela. Uste diat alokatu nituen jantziak ez ditudala bueltan jasoko. Baina nik ez diat 465 komediantearekin zerikusirik, Fedromori berari utzi bainizkion; hala ere, kontuz ibiliko nauk. Irteten denera arte, pertsona mota bakoitza zein tokitan aurkituko duzuen esango dizuet, norbait aurkitu nahi duenak zailtasun handirik gabe aurki dezan, biziotsua nahiz bizio gabea, zintzoa nahiz zitala. Zin faltsuren bat egin duen norbait aurkitu nahi duzue? 470 Joan zaitezte komiziora<sup>43</sup>. Gezurti bat edo harroputz bat? Joan zaitezte Kloazinaren<sup>44</sup> tenplura. Gizon ezkondu aberats eta emankorrak basilikan<sup>45</sup> aurkitzen dituk. Bertan

---

<sup>42</sup> *Halophanta* Plautok sorturiko hitz bat da, *sycophanta* ‘salatzaile, iruzurgile’ hitzarekin analogiaz. Ez du esanahi argirik, baina *iruzurgile*-tik abiatuta, *iruzurrontzi* asmatu dut.

<sup>43</sup> Komizioa pretoreak justizia administratzen zuen foroko tokia zen.

<sup>44</sup> Kloazina zeritzon *Cloaca Maxima* (‘estolderia nagusia’) presiditzen zuen Venus jainkosaren irudiari.

<sup>45</sup> Ez dago argi zeri egiten dion erreferentzia basilika honek, Porzia Basilika (ustez Erromako lehenengo basilika) Plauto hil zen urtean inauguratu zen eta.

egongo dituk emagaldu zaharrak eta bitartekariak ere. Oturuntzak antolatzen dituztenak arrain-azokan egoten dituk. Foroaren beheko aldean jaun izendunak eta aberatsak egoten dituk; foroaren erdialdean, ubidearen<sup>46</sup> ondoan, handiusteenak. Lakuaren<sup>47</sup> goiko aldean, lotsagabeak, berritsuak eta asmo gaiztokoak egoten dituk, lotsarik eta arrazoirik gabe lagun hurkoa iraintzen dutenak, nahiz eta berak iraintzeko arrazoiak gehiago izan. Denda Zaharretan<sup>48</sup> aurki daitezkek interes truke dirua maileguan eman eta jasotzen dituk. Kastorren tenpluaren<sup>49</sup> atzean fidagarriak ez diren gizon-emakumeak zaudek. Kale Etruskoan<sup>50</sup> beren gorputzak saltzen dituztenak egoten dituk. Velabron<sup>51</sup> okinak, harakinak, apaizak, birsaltzaileak eta merkantziaz hornitzen dutenak<sup>52</sup> egoten dituk. Senar aberats eta eskuzabalak Leukadia Opiaren<sup>53</sup> etxean. Ateak kirrika egin dik. Isildu egin beharko nauk.

## BIGARREN AGERRALDIA

### GURGURIO, KAPADOZIAR, LIKON, PLANESIA

GURGURIO.– (*Planesiari*) Zuk segi aurretik, neskaxa, atzean daukadana ezin dut zaindu eta. (*Kapadoziarri*) Neskak esan zidan zituen bitxi eta soinekoak bereak zirela.

KAPADOZIAR.– Ez diat kontrakorik esaten.

GURGURIO.– Agian hobe da zuri gogoraztea.

LIKON.– (*Kapadoziarri*) Gogoratu diru guztia, hau da, hogeita hamar mina, itzultzea hitzeman duzula, norbaitek epailearen aurrean aldarrikatzen badu neskatoa askea dela.

KAPADOZIAR.– Gogoratuko dut. Zaude lasai horregatik. Berriz ematen dizut hitza.

GURGURIO.– Hau ere gogora dezazun nahi dut nik.

KAPADOZIAR.– Gogoratzen diat eta bere jabetza osoa ematen diat.

GURGURIO.– Zer jasoko dut, ba, nik andraketari batengandik? Zin faltsuak egin eta

<sup>46</sup> Ubide hau foroa zeharkatzen zuen errekatxo bat da, geroago *Cloaca Maximaren* oinarria izango zena.

<sup>47</sup> *Curtius* lakua da; hasieran foroaren zati bat hartzen zuen, baina gero urik gabe geratu zen.

<sup>48</sup> Horrela izendatzen ziren foroaren hegoaldean kokatutako eta Kristo aurreko 210 urteko sutean kalterik jasan ez zuten dendak (gehienbat bankari eta trukatzailenak).

<sup>49</sup> Kastor eta Poluxen tenplua erromatar eta latindarren artean gertatutako Regilo lakuko guduan sagaratu zuten tenplu bat zen. Tenplu hau ere foroaren hegoaldean kokatzen da.

<sup>50</sup> Kastor eta Poluxen tenpluaren eta geroago Julia basilika izango zenaren artean zegoen kokatua kale hau. Jende asko ibiltzen zen kale honetan.

<sup>51</sup> Velabro Erromako auzo bat zen. Bertan, hiriko merkatu nagusiak zeuden.

<sup>52</sup> Latinez *qui ipsi vortant, vel qui aliis ubi vorsentur praebeant*. Esaldi honen esanahia ez dago argi: ez dakigu zehazki merkantziez ari den, ala, zenbaitek ulertu duten moduan, sexu-joera jakin batez ('atzetik eman/hartu').

<sup>53</sup> Ez dakigu nor zen emakume hau. Agian foroan putetxe bat izango zuen emakume bat da.

jaso duten dirua jaso ez dutela esateko erabiltzen duten mihia besterik ez dute eta. Saltzen dituzuen pertsonak ez dira zuenak, aske uzten dituzuen pertsonak ez dira zuenak eta mendean hartzen dituzuen pertsonak ere ez dira zuenak. Inork ez du zuen fidatzailea izan nahi, eta zuek ezin zarete inoren fidatzaile izan. Nire ustez, andraketariak eulien, 500 eltxoen, zimitzen, zorrien eta arkakusoen arraza berdinekoak dira: gorrotagarriak, kaltegarriak eta gogaikarriak, ez dira inorentzat baliagarriak. Gizon prestuak ez dira ausartzen foroan zuekin gelditzen, eta gelditzen dena gaitzetsi egiten dute, denek begiratzen eta kritikatzten dute. Ezer ere egin ez duen arren, bere ospea eta ondasunak kaltetzen ari dela esaten dute.

LIKON.– Begibakar, nire iritziz oso ondo ezagutzen dituk andraketariak, ala Polux! 505

GURGURIO.– Ba zuek ere zaku berean sartzen zaituztet, ala Herkules! Berdinak zarete. Haiek, behintzat, beren merkantzia toki ezkutuetan izaten dute; zuek foroan bertan egoten zarete. Zuek lukurreriaz kaltetzen dituzue gizonak; haiek probokazio eta putetxeekin. Herriak ezin konta ahala lege onartu ditu zuen kontra<sup>54</sup>, baina edozein lege onartzen dela ere, zuei berdin dizue, beti aurkitzen duzue ihesbidea. Zuentzat legea ur 510 beroa bezalakoa da, berehala hozten da.

LIKON.– (*Bereizirik*) Hobe isilik geratu izan banintz.

KAPADOZIAR.– Jendeaz gaizki hitz egin, hori behintzat ederki egiten duk.

GURGURIO.– Merezi ez duenaz gaizki hitz egitea, hori da nire ustez gaizki hitz egitea; baina merezi duenaz gaizki hitz egitea, hori ondo hitz egitea dela uste dut. Nik ez dut antzematen jabego eskubiderik ez zuregan ez beste proxenetengan. (*Likoni agur esan*) 515  
Nahi al duzu beste ezer, Likon?

LIKON.– Ez, agur!

GURGURIO.– Agur!

KAPADOZIAR.– (*Gurguriori*) Hi, entzun gauzatxo bat.

GURGURIO.– Esan, zer nahi duzu?

KAPADOZIAR.– (*Planesia seinalatu*) Arren eskatzen diat: zaindu ezak, ongi tratatu. Nik etxean modu egoki eta zintzoan hezi diat.

GURGURIO.– Horrelako pena ematen badizu, zer emango didazu ondo tratatzearen truke?

KAPADOZIAR.– Kaka zaharra!

GURGURIO.– Horixe da sendatzeko behar duzuna.

---

<sup>54</sup> Bertso-lerro hauetan lukurarien kontrako *lex Sempronia* ospetsua aipatzen dela uste denez, antzezlanaren dataziorako balioko luke (K.a. 193an edo).

KAPADOZIAR.– (*Planesiari*) Tuntuna, zergatik ari zara negarrez? Ez izan beldurrik, 520  
ongi saldu zaitut eta<sup>55</sup>, ala Herkules. Ahalegindu zaitetz ona izaten, mesedez. Jarrai ezazu  
zintzoki, ene neska zintzoa.

LIKON.– (*Berriz ere agurtu*) Orduan, ez duzu ezer gehiago nahi nigandik, Sumanoak?

GURGURIO.– Agur! Oso adeitsua izan zara zure denbora eta dirua niri eskaintzean.

LIKON.– Agurtu ezazu zure nagusia.

GURGURIO.– Agurtuko dut. (*Planesiarekin irten*)

LIKON.– (*Kapadoziar agurtu*) Zerbait nahi al duzu, Kapadoziar? 525

KAPADOZIAR.– Falta diren hamar minak ematea, neure burua pixka bat zaintzeko, ea  
hobetzen naizen.

LIKON.– Jasoko dituzu. Bidali ezazu norbait diruaren bila bihar. (*Irten*)

KAPADOZIAR.– (*Bakarrik*) Negozio ona egin dudanez, hemen, santutegian, jainkoei  
eskerrak eman nahi zizkieat. Aspaldi erosi nian neskatxa, gaztea zenean, hamar minaren  
truke. Baina hortik aurrera sekula ez diat ikusi saldu zidan gizona. Hilda dagoela 530  
pentsatzen diat. Baina, zer axola zidak ba niri? Neuk zaukat dirua. Jainkoak norbaiten  
aldekoak direnean, ez zagok zalantzarik onura asko ematen diotela. Orain sakrifizioa  
egiteaz arduratuko nauk. Neure burua ondo zainduko diat. (*Tenpluan sartu*)

## HIRUGARREN AGERRALDIA

### TERAPONTIGONO, LIKON

TERAPONTIGONO.– Momentu honetan sentitzen dudan haserrea ez da edonolakoa:  
gotortutako herriak suntsitzea eragiten didan haserre bera da. Gordailutzat emandako 535  
hogeita hamar minak oraintxe bertan itzultzen ez badizkidazu, zeure bizitzarekin  
ordainduko duzu.

LIKON.– Eta emango dizudan astindua ere ez da edonolakoa izango, zor ez diedana  
eskatzen didatenei ematen diedan astindu bera izango da.

TERAPONTIGONO.– Ez zakizkit harrotu! Ez pentsa zure aurrean belaunikatuko  
naizenik.

LIKON.– Eta zuk ez pentsa bueltatu dizudana berriro bueltatzera behartuko nauzunik. 540  
Ez daukat zuri ezer emateko asmorik.

TERAPONTIGONO.– Hori pentsatu nuen nik dirua zure eskutan utzi nuenean.

---

<sup>55</sup> Esaldi honek zentzu bikoitza dauka, ‘pertsonek on bati saldu zaitut’ eta ‘prezio onean saldu zaitut’.

Banekien ez zenidala ezer itzuliko.

LIKON.– Orduan, zergatik eskatzen duzu?

TERAPONTIGONO.– Nori bueltatu diozun jakin nahi dut.

LIKON.– Zure liberto begibakarrari. Sumanoa zen bere izena. Hari bueltatu diot dirua, zigilatutako oholtxoak eman zizkidan, zuk... 545

TERAPONTIGONO.– Baina zer liberto begibakar? Zein Sumanoa? Ametsetan ari zara. Nik ez daukat libertorik.

LIKON.– Horretan behintzat libertoak eduki eta bertan behera uzten dituzten zenbait andraketari baino zentzudunagoa zara.

TERAPONTIGONO.– Baina zer egin duzu?

LIKON.– Agindu zenidana. Dizudan adeitasunagatik, ez dut zure zigiludun gutuna 550 ekarri zidan mezularia gutxietsi nahi izan.

TERAPONTIGONO.– Ba ergela zara benetan oholtxo horiek nireak direla sinetsi baduzu.

LIKON.– Gai pribatu zein publikoak argitzeko erabiltzen dira oholtxoak, zergatik ez nuen ba sinetsiko zeuk bidali zenituela? Ni banoa. Zure kontua guztiz hutsik dago. Ongi izan, gerlari!

TERAPONTIGONO.– Zer? Ongi izateko?

LIKON.– Ba gaizki izan, nahiago baduzu. Eta niri dagokidanez, zure azken egunera arte. (*Irten*)

TERAPONTIGONO.– (*Bakarrik*) Eta zer egin zezakeat orain? Zertarako balio izan 555 zidak orain arte erregeek niri obeditu izanak, gaur gerizpetako gizagaixo<sup>56</sup> honek nitaz barre egin badik?

## LAUGARREN AGERRALDIA

### KAPADOZIAR, TERAPONTIGONO

KAPADOZIAR.– (*Santutegitik irten, Terapontigono ikusi gabe*) Jainkoak gizon baten aldekoak badituk, nire ustez izango duk berarekin haserre ez daudelako. Sakrifizioa gauzatu dudanean, bururatu zidak komeni dela bankariari dirua eskatzea, atzerrira

---

<sup>56</sup> Soldaduak *umbraticus* hitza erabiltzen du bankaria izendatzeko, hau da, '(bere dendako) gerizpetan bizi dena'. Bere buruarekin kontrajartzen du, kanpaina militarren ondorioz eguzkitan denbora asko pasatu baitzuen berak

joaten baduk ere. Hobe izango duk nik jatea, berak baino. 560

TERAPONTIGONO.– (*Haserre Kapadoziarrek ez duelako ikusi eta ez delako hurbildu agurtzera*) Agurtu zaitut jada!

KAPADOZIAR.– Terapontigono Platagidoro, agur! Ikusten dut osasuntsu heldu zarela Epidaurora; hortaz, gaur, nire etxean ez duzu gatzik ere dastatuko.

TERAPONTIGONO.– Eskerrik asko zure gonbidapenagatik, baina badaukat jada konpromiso bat... zu pikutara bidaltzea. Zer moduz dago zure etxean daukadan merkantzia?

KAPADOZIAR.– Nire etxean zuk ez daukazu ezer. Ez daukazu testigurik ekarri 565 beharrik, nik ez dizut ezer zor.

TERAPONTIGONO.– Zer?

KAPADOZIAR.– Nik bete dut nire hitza.

TERAPONTIGONO.– Bueltatuko didazu nire neskatxa ala ez? Bestela nire ezpatarekin zeharkatuko zaitut eta, alferrontzi halakoa!

KAPADOZIAR.– Zoaz astindu galanta jasotzera. Ez saiatu ni beldurtzen. Neska eraman egin zuten eta zu ere eraman egingo zaituzte, baina ohatila batean, ni iraintzen jarraitzen baduzu behintzat. Ez dizut ezer zor, jipoi bat ez bada. 570

TERAPONTIGONO.– Ni jipoitzearekin mehatxatzen ari al zara?

KAPADOZIAR.– Mehatxua baino gehiago izango da ni gogaitzen jarraitzen baduzu, ala Polux.

TERAPONTIGONO.– Andraketari bat niri mehatxuka? Nire gudu balentria kontaezinak zapaltzen? Gudu-zelaian fidelki defendatzen nauten nire ezpataren eta ezkutuaren 575 izenean zin dagizut neskatxa ematen ez badidazu txiki-txiki eginda eramango zaituztela inurriek.

KAPADOZIAR.– Eta nik, ilea kentzeko nire pintzen, nire orraziaren, nire ispiluaren, nire kizkurgailuaren, nire guraizeen eta nire komuneko eskuoihalen izenean zin dagizut zure arrandiei eta zure mehatxu beldurgarriei ez diedala nire komuna garbitzen duen 580 esklabo andreari baino kasu gehiago egingo. Zure izenean dirua eman zidanari eman nion neskatxa.

TERAPONTIGONO.– Eta nor da ba hori?

KAPADOZIAR.– Zure libertoa zela esan zuen, Sumanoa.

TERAPONTIGONO.– Nire libertoa? Badakit! Pentsatzen jarrita, Gurgurio izan da jokaldi gaizto hau egin duena. Berak kendu zidan eraztuna.

KAPADOZIAR.– Eratzuna galdu al zenuen? (*Bereizita*) Lizentziatuen konpainia batean 585  
izena emandako soldadu baten adibide bikaina duk.

TERAPONTIGONO.– Non aurkitu dezaket Gurgurio delako hori?

KAPADOZIAR.– Erraza da: gari tontor batean<sup>57</sup>. Bat bilatzen baduzu milaka aurkituko  
dituzu, ziur. Ni banoa. Agur eta ongi izan!

TERAPONTIGONO.– Zu gaizki izan eta ezbeharren bat gerta dakizula! (*Bakarrik*) Eta  
zer egingo diat nik orain? Geratu ala joan egingo nauk? Adarra nola jo didaten  
pentsatzea ere! Erabaki diat: non dagoen esaten didanari ordainsaria emango zioat. 590  
(*Irten*)

## BOSGARREN EKITALDIA

### LEHENENGO AGERRALDIA

#### GURGURIO

GURGURIO.– (*Fedromoren etxetik irten*) Antzinako poeta batek, tragedia batean, bi  
emakume bat baino okerragoak direla esan zuela entzun diat. Baina Fedromoren neska  
lagun hau baino emakume okerragorik ez diat ikusi, ezta bere entzuterik sekula eduki 595  
ere. Ezinezkoa duk emakume okerragorik izendatzea edo imajinatzea, ala Polux. Eratzun  
hau neukala ikusi zuenean ea non lortu nuen galdetu zidaan. «Zergatik nahi duzu jakin?»  
«Jakiteko beharra dudalako.» Ez zioat esan behar. Orduan, eratzuna kentzeko, eskua  
hozkatu zidaan. Kostatu egin zitzaidaan askatu eta ihes egitea! Alde hortik, azeri eme  
hori!

## BIGARREN AGERRALDIA

### PLANESIA, FEDROMO, GURGURIO, TERAPONTIGONO

PLANESIA.– (*Fedromoren etxetik irten*) Azkar, Fedromo!

FEDROMO.– Azkar? Zergatik?

PLANESIA.– Parasittoa ez galtzeko. Zerbait garrantzitsua dago jokoan. 600

GURGURIO.– Nik ez daukat ezer jokoan: izan nuena<sup>58</sup> azkar xahutu nuen eta.

---

<sup>57</sup> *Gurgurio* intsektu koleopteroetako hainbat espezieren izena da; zereal eta lekale haziz elikatzen dira. Parasittoa jatuna dela gogorarazten duen goitizena da, zalantza gabe.



FEDROMO.– (*Gurguriori heldu*) Harrapatu dut! Zer gertatzen da?

PLANESIA.– Galde iezaiozu non lortu zuen eraztuna. Nire aitak erabiltzen zuena da.

GURGURIO.– (*Tonu isekarian*) Baita nire izebak ere.

PLANESIA.– Bere amak eman zion nire aitari.

GURGURIO.– Eta zure aitak zuri eman zizun.

PLANESIA.– Ez esan zentzugabekeriarik.

GURGURIO.– Barruan daramat zentzugabekeriak esatea: horri esker nire bizitza 605 errazagoa da. Zer gehiago?

PLANESIA.– Arren, ez iezadazu galarazi nire gurasoak aurkitzea.

GURGURIO.– Zer? Nik al dauzkat ba zure ama eta aita eraztunaren harriaren azpian ezkutaturik?

PLANESIA.– Ni libre jaio nintzen.

GURGURIO.– Orain esklabo diren beste asko bezala.

FEDROMO.– Haserretzen ari nauk.

GURGURIO.– Esan dizuet non lortu nuen eraztuna. Zenbat aldiz errepikatu behar dut? Berriz diotsuet, soldadu bati irabazi nion dado joko batean.

TERAPONTIGONO.– (*Eszenan agertu*) Eskerrak! Hemen dago bilatzen nuen gizona. 610 Zer moduz, gizon on hori?

GURGURIO.– Entzuten dizut. Nahi baduzu zure klamidea jokatu dezakegu hiru jokalditan.

TERAPONTIGONO.– Hoa infernura hire jokaldi eta joaldiekin<sup>59</sup>. Buelatu oraintxe bertan dirua edo neskatxa.

GURGURIO.– Zer diru? Zer txorakeriari buruz ari zara hitz egiten? Zein neska nahi duzu bueltatzea?

TERAPONTIGONO.– Gaur andraketariaren etxetik hartu duzuna, gizatxar horrek.

GURGURIO.– Ez dut inor hartu. 615

TERAPONTIGONO.– Bai noski, hemen ikusten ari naiz eta.

FEDROMO.– Neska hau librea da.

TERAPONTIGONO.– Nire esklaboa den neska hau librea dela? Inoiz ez diot

<sup>58</sup> Planesiak *magna res est* dio ('zerbait garrantzitsua'), baina Gurguriok *res* 'diru' edo 'ondare' gisa ulertzen du. Gurgurioren *nulla mihi est* erantzunak 'nik, aldiz, ez daukat ezer' esan nahi du. Itzulpenean *jokoan izan* esamoldearekin latinezko testuko hitz jokoak itzultzen saiatu naiz.

<sup>59</sup> Latinezko testuak *cum bolis*, *cum bulbis* dio, hau da, 'zure jokaldi eta zure tipulekin'. Itzulpenean jatorrizkoaren efektua mantentzen saiatu naiz eta *jokaldi* hitzaren hots antzekoa duen hitz bat erabili dut, *joaldi*, bide batez *bulbis/vulvis* ('tipulekin'/'potxotxekin') hitz-jokoak izan lezakeen zentzu lizunkoia iradokitzeko.

askatasunik eman.

FEDROMO.– Nork saldu zizun? Edo non erosi zenuen? Esan.

TERAPONTIGONO.– Bere prezioa bankari baten bitartez ordaindu nuen. Diru hori lau aldiz biderkatuta eman beharko didazue, andraketariak eta biok.

FEDROMO.– Libre jaiotako neska lapurtuak erosten dakizunez, segi epailearen aurrera. 620

TERAPONTIGONO.– Ni ez noa.

FEDROMO.– Testigurik ba al daukazu?

TERAPONTIGONO.– Ez, ez daukat.

FEDROMO.– Jupiterrek kaltetu zaitzala, soldadu; gera zaitetz betiko testigutxorik gabe<sup>60</sup>. (*Gurguriori*) Hi izango haiz nire testigua. Hator hona.

TERAPONTIGONO.– Esklabo bat testigu? Kontuz zer egiten duzun.

GURGURIO.– (*Soldaduaaren arreta erakarri, Fedromok belarria ukitzen diola ikus dezan*<sup>61</sup>) Begira. Libre naizela ikus dezazun! Joan zaitetz epaitegira. 625

TERAPONTIGONO.– (*Gurgurio jo*) Joan zeu!

GURGURIO.– Herritarrak, herritarrak!

TERAPONTIGONO.– Zergatik ari haiz oihuka?

FEDROMO.– Eta zuk zergatik jotzen duzu?

TERAPONTIGONO.– Nahi dudalako.

FEDROMO.– (*Gurguriori*) Hator hona; nik emango diat, egon hadi isilik.

PLANESIA.– Mesedez, Fedromo, salba nazazu!

FEDROMO.– Neure burua edo nire jeinu babeslea izango bazina bezala. (*Terapontigonori*) Soldadu, parasitoak kendu zizun eraztuna non lortu zenuen esateko 630 eskatzen dizut.

PLANESIA.– (*Soldaduaaren oinetan belaunikatu*) Zure belaunengatik, arren, esaguzu.

TERAPONTIGONO.– Zer axola dizue ba zuei? Klamide hau edo ezpata hau nola lortu ditudan ere galdetu dezakezue.

GURGURIO.– Zer nolako handinahia duen harroputz honek!

TERAPONTIGONO.– (*Fedromori, Gurgurio seinalatuz*) Bidali ezazu pikutara eta dena kontatuko dizuet.

GURGURIO.– Esango dizuena hutsaren hurrengoa izango da.

PLANESIA.– (*Oraindik soldaduaaren oinetan belaunikatuta*) Esan, arren eskatzen dizut.

---

<sup>60</sup> Latinez *testis* hitzak ‘testigu’ eta ‘testikulu’ esanahiak ditu. Hemen, gorago bezala (30-32 bertso-lerroetan), *testigutxo* eman dut euskaraz, zentzu bikoitza duenean.

<sup>61</sup> Norbait testigutzat hartzeko egiten zen ohiko prozedura zen belarria ukitzea.

TERAPONTIGONO.– Esango dizuet. Zutitu zaitetz. Entzun eta aditu. Eraztun hau nire 635  
aitarena izan zen, Perifanesena...

PLANESIA.– Perifanes?

TERAPONTIGONO.– Hil aurretik neuri eman zidan, gizalegez, bere semeari...

PLANESIA.– Ai ene Jupiter!

TERAPONTIGONO.– Jaraunspen gisa eman zidan.

PLANESIA.– Ai ene Pietate, nire babeslea, ez nazazu utzi, nik ez dut eta inoiz utzi 640  
zureganako debozioa! (*Terapontigonori*) Ene anaia, agur!

TERAPONTIGONO.– Zergatik sinetsi beharko nuke hau? Esan; egia esaten ari bazara,  
jakingo duzu zein zen zure amaren izena.

PLANESIA.– Kleobula.

TERAPONTIGONO.– Eta zure inudearena?

PLANESIA.– Arkestrata. Berak eraman ninduen jai dionisiarretan<sup>62</sup> antzezlan bat 645  
ikustera. Iritsi eta nire aulkian jarri ninduenean, urakan bat ekarri zuen. Harmailak erori  
egin ziren eta izutu egin nintzen. Dardaraka eta beldurturik nengoen, ez hilik, ez bizirik,  
ezin dut esan nola, baina norbaitek heldu eta atera ninduen handik. 650

TERAPONTIGONO.– Gogoratzen dut hondamendi hura. Baina, esan, non dago bahitu  
zintuena?

PLANESIA.– Ez dakit. Baina beti eraman dut nirekin desagertu nintzen egunean aldean  
neraman eraztuna.

TERAPONTIGONO.– Utzidazu ikusten.

GURGURIO.– Zoratu al zara eraztuna honi uzten? 655

PLANESIA.– Utz nazazu bakean.

TERAPONTIGONO.– Ai ene Jupiter! Hauxe da zure urtebetetze egunean oparitu nizun  
eraztuna. Neure burua bezain ondo ezagutzen dut. Agur, ene arreba!

PLANESIA.– Ene anaia, agur!

FEDROMO.– Elkartze hau zuen onerako izatea eskatzen diet jainkoei.

GURGURIO.– Eta nik gu guztion onerako izatea. (*Terapontigonori*) Zuk, gaur iritsi 660  
zarenez, eskain iezaguzu oturuntza zure arrebaren ohorez; (*Fedromo seinalatu*) honek  
bihar ezkontzakoa eskainiko digu. Hitza ematen dut bertan izango naizela.

FEDROMO.– Isildu hadi.

GURGURIO.– Ez naiz isilduko, dena ondo doa eta. (*Terapontigonori*) Aizu, soldadu,

---

<sup>62</sup> Dionisiarrek, Grezian, Dioniso jainkoaren omenez eginiko jaialdiak ziren. Bertan, antzezlanak izaten ziren.

emaiozu emaztetzat; nik emango dut ezkonsaria.

TERAONTIGONO.– Zer ezkonsari?

GURGURIO.– Nik?... Bizi guztian harenean jateko ohorea.

665

TERAPONTIGONO.– Plazer bat izango da niretzat, ala Herkules. Gainera, andraketariak hogeita hamar mina zor dizkigu.

FEDROMO.– Zer dela eta?

TERAPONTIGONO.– Hitz eman zidalako diru guztia itzuliko zidala eztabaidarik gabe, norbaitek neskaxa hau librea dela esanez gero. Orain, goazen andraketariarengana.

670

GURGURIO.– Ideia bikaina.

FEDROMO.– Lehenengo nire kontua konpontzea gustatuko litzaidake.

TERAPONTIGONO.– Zer da zure kontu hori?

FEDROMO.– Berarekin ezkondu nahiko nuke.

GURGURIO.– Zeren zain zaude ezkontza onartzeko, soldadu?

TERAPONTIGONO.– Planesiak nahi badu.

PLANESIA.– Bai, benetan desio dut, ene anaia.

TERAPONTIGONO.– Orduan, onartzen dut.

GURGURIO.– Bikain!

FEDROMO.– (*Tonu irmoan*) Soldadu, hitz ematen duzu ezkontza onartuko duzula?

TERAPONTIGONO.– Hitz ematen dut.

GURGURIO.– Neuk ere berdina diot: hitz ematen dut.

675

TERAPONTIGONO.– Zoragarria. Baina hor dator andraketaria, nire altxorra.

## HIRUGARREN AGERRALDIA

KAPADOZIAR, TERAPONTIGONO, FEDROMO, PLANESIA, GURGURIO<sup>63</sup>

KAPADOZIAR.– Bankarien eskuetan utzitako dirua seguru ez dagoela esatea ergelkeria hutsa duk. Nire ustez ondo utzita eta txarto utzita zagok. Horixe frogatu diat nik gaur. Sekula bueltatuko ez diatena ez zagok galtzeko arriskuan, guztiz galdua zagok. Gaur, esaterako, Likon banku guztietara joan duk itzuli behar zizkidan hamar minak lortzeko asmoz. Ez dik ezer lortu, ordea, eta, hortaz, oihuka eskatu zioat. Auzitegira eraman naik.

680

---

<sup>63</sup> Esan beharra dago Gurgurioren agerraldi honetako presentzia oso eztabaidatua dela. Batzuek ukatu egiten dute Gurgurio azken agerraldi honetan egotea eta erantzunak Terapontigono soldaduenak direla esaten dute. Nik Ernouten testua (eta Bravoren itzulpena) jarraitu dut.

Zor didan dirua pretorearen aurrean emango ote zidaan beldurrez egon nauk. Baina, bere 685  
lagunek konbentzituta, bere diruarekin ordaindu zidak zorra. Orain korrika noak etxera.

TERAPONTIGONO.– Aizu, andraketari! Zurekin hitz egin nahi dut.

FEDROMO.– Baita neuk ere.

KAPADOZIAR.– Nik, ordea, ez dut zuetako inorekin hitz egin nahi. (*Joateko keinua egin*)

TERAPONTIGONO.– Mesedez, ez zaitez hortik mugitu.

FEDROMO.– Eta presta zaitez dirua oraintxe bertan botatzeko.

KAPADOZIAR.– (*Soldaduari*) Zer zerikusi dut nik zurekin? (*Fedromori*) Eta zurekin?

TERAPONTIGONO.– Katapultako gezi bihurtu eta soka batera lotuko zaitut, emango 690  
dizudan ukabildarekin jaurtigai bat lez irtengo zara hegan eta<sup>64</sup>.

FEDROMO.– Eta nik, maritxu halakoa, txakurkume batekin oheraraziko zaitut,  
burdinazko kate txikiari lotuta<sup>65</sup>.

KAPADOZIAR.– Eta nik kalabozo batean sartuko zaituztet bertan hil zaitezten.

TERAPONTIGONO.– (*Esklabo bati*) Estutu iezaiolek lepoa, eraman ezak urkamendira.

FEDROMO.– Nolanahi ere, bere kabuz joango da azkenean.

KAPADOZIAR.– Jainkoen eta gizonen izenean, modu honetan arrastaka eramatea ere, 695  
kondenatua izan gabe eta lekukorik izateko eskubide gabe. Arren eskatzen dizut,  
Planesia, eta zuri ere bai, Fedromo, lagundu nazazue!

PLANESIA.– Anaia, arren eskatzen dizut, ez ezazu hil kondenarik gabe. Bere etxean  
ondo tratatu ninduen eta modu garbian hezi.

TERAPONTIGONO.– Baina ez bere borondatez. Eman eskerrak Eskulapiori, berari  
esker zara eta oraindik garbia. Gaixorik egon ez balitz, aspaldi emango zintuen atetik 700  
sartzen zen lehen gizonari.

FEDROMO.– Egon adi, ea auzi honi irtenbiderik bilatzen diodan. (*Kapadoziarri heltzen  
dion esklaboari*) Solta ezak. (*Kapadoziarri*) Etor zaitez hona, andraketari. Nire epaia  
emango dut, kasu egingo badidazue behintzat.

TERAPONTIGONO.– Zure eskuetan uzten dugu.

KAPADOZIAR.– Zure epaiaren ondorioz norbaitek nire dirua eramaten ez badu

---

<sup>64</sup> Jatorrizko testuan, Terapontigonok andraketaria mehatxatzen duenean *te nervo torquebo* esaten du (*nervos* bat katapultako soka edota presoak lotu eta torturatzeko erabiltzen den aparatua izan daiteke); 'oinaze-zaldian torturatuko zaitut' edota '(katapultaren) sokarekin jaurtiko zaitut' zentzuak izan ditzake esaldi horrek. Azken zentzu honen harira esaten du jarraian «jaurtigai bat lez irtengo zara hegan eta».

<sup>65</sup> Latinezko testuan hitz jokoa dago *catellus* 'txakurkume' eta *catella* 'kate txikia' hitzekin. Itzulpenean bi hitzen arteko erlazioa mantentzen saiatu naiz.

bakarrik, ala Herkules.

TERAPONTIGONO.– Eta egin duzun zina?

705

KAPADOZIAR.– Zina? Nola?

FEDROMO.– Zure mihiarekin.

KAPADOZIAR.– Mihi berarekin desegingo dut zin hori orain. Mihia hitz egiteko daukat, ez neure buruari kalteak eragiteko.

TERAPONTIGONO.– Alferrikakoa da. (*Esklabo bati*) Estutu iezaiok lepoa.

KAPADOZIAR.– Nahikoa da! Nahikoa da! Agintzen duzuna egingo dut.

TERAPONTIGONO.– Orain zentzuduna zarenez, erantzun nire galderei.

KAPADOZIAR.– Galde iezadazu nahi duzuna.

TERAPONTIGONO.– Ez al zenuen zin egin diru guztia itzuliko zenuela, norbaitek neskatzaren askatasuna aldarrikatuz gero?

710

KAPADOZIAR.– Ez dut oroitzen hori esan izana.

TERAPONTIGONO.– Zer? Ukatu egiten al duzu?

KAPADOZIAR.– Ukatu egiten dut, ala Herkules. Noren aurrean? Non?

GURGURIO.– Likon bankariaren eta nire aurrean.

KAPADOZIAR.– Isilduko al haiz?

GURGURIO.– Ez, ez dut nahi. Nik zuri ez dizut kasurik egiten, ez zaitez saiatu ni izutzen. Likonen eta nire aurrean eman zenuen hitza.

FEDROMO.– Nahikoa da! Sinesten dizut. Orain, andraketari, entzun zein den nire epaia: neskaxa hau librea da; hauek biak anai-arrebak dira. Neska nirekin ezkonduko da eta mutilari dirua itzuliko diozu. Hau da nire epaia.

715

TERAPONTIGONO.– (*Kapadoziarri*) Eta zu, dirua itzultzen ez badidazu, oinaze-zaldian<sup>66</sup> torturatuko zaitut.

KAPADOZIAR.– Zure epaia ez da justua, Fedromo, ala Herkules. Larrutik ordainduko duzu; eta zu, soldadu, jainkoek nahas zaitzatela. Zuk, jarrai nazazu.

720

TERAPONTIGONO.– Nora jarraitu behar zaitut?

KAPADOZIAR.– Nire bankariarengana, hau da, pretorearengana; bertan ordaintzen diet nire hartzekodunei.

TERAPONTIGONO.– Dirua bueltatzen ez badidazu oinaze-zaldira eramango zaitut nik, ez pretorearengana.

KAPADOZIAR.– Benetan desio dut zure heriotza, jakin dezazun.

---

<sup>66</sup> Oinaze-zaldia torturatzeko erabiltzen den egurrezko aparatua da.

TERAPONTIGONO.– Bai?

KAPADOZIAR.– Bai noski, ala Herkules.

TERAPONGITONO.– (*Ukabilak erakutsi*) Ba nik oso ondo ezagutzen ditut nire ukabil hauek.

KAPADOZIAR.– Eta zer?

TERAPONTIGONO.– «Eta zer» galdetzen didazu? Haserretzen banauzu zu lasaitzeko erabiliko ditudala.

KAPADOZIAR.– Beno, goazen. Oraintxe ordainduko dizut.

TERAPONTIGONO.– Horrela bai.

FEDROMO.– Zuk, soldadu, nire etxean afalduko duzu. Gaur bertan izango da ezkontza.

TERAPONTIGONO.– Izan bedi zuen eta nire onerako! Ikusleok, egin txalo.

## 5. Bibliografia

### 5.1. Itzulpenak

Bilbao, G., P. Garcia, M. Utrilla (itz.), 2018, *Plauto. Militar harroputza*, Bilbo: UEU.

Bravo, J. R. (itz.), 1995, *Plauto. Comedias II*, Madril: Cátedra.

Ernout, A. (itz. ed.), 1935, *Plaute. Comédies III*, Paris: Les Belles Lettres.

González-Haba, M. (itz.), 1996, *Comedias II: La comedia de la arquilla; Gorgojo; Epidico; Los dos menecmos; El mercader; El militar fanfarrón; La comedia del fantasma; El persa*. Madril: Gredos.

Melo, W. de (itz. ed.), 2011, *Plautus II: Casina. The Casket Comedy. Curculio. Epidicus. The Two Menaechmuses*, Cambridge MA, Londres: Harvard University Press [Loeb Classical Library].

Nixon, P. (itz. ed.), 1916, *Plautus II: Casina. The Casket Comedy. Curculio. Epidicus. The Two Menaechmuses*, Londres: William Heinemann / New York: G. P. Putnam's Sons.

### 5.2. Azterketak

Alberdi, X., 1993, “Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak”, *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, 64, 425-442.

- Barros Ochoa, M., 1992, “Traducción de caractónimos en la obra de William Shakespeare”, *Estudios Humanísticos. Filología*, 14, 113-128.
- Bilbao, G., 2002, *Latin-literaturarako sarbidea. Idazleak eta idazlanak*, Bilbo: UEU.
- Conrad, Clinton C., 1918, “The Role of the Cook in Plautus’ *Curculio*”, *Classical Philology*, 13, 4, 389-400.
- Gallego Cebollada, E. A., 2018, “Un *novom aucupium*: Gnatón frente a la antigua *parasitatio*”, *Revista de Iniciación en la Investigación del teatro clásico grecolatino y su tradicióni*, 6, 21-38.
- López Gregoris, R., 2016, “Los Personajes femeninos en la comedia de Plauto”, *Jornadas de teatro clásico*, Málaga: UAM. [Lan argitaragabea, autoreak Málagako Unibertsitatearen lan akademikoen RIUMA biltegian sareratua (orrialde-zenbakirik gabe): <<http://hdl.handle.net/10630/11329>>]
- Marco, J., 2010. “The translation of wordplay in literary texts. Typology, techniques and factors in a corpus of English-Catalan source text and target text segments.” *Target* 22 (2), 264–297.
- Mattiangeli, D., 2011, “The legal aspects of the personality of the leno”, *Teoría e storia del diritto privato*, 4, 1-48.
- Suárez, M. A., 2010, “El monólogo del corego en *Curculio*: un tour por la memoria”, *Revista de Estudios Latinos (RELat)*, 49-61.